



ARTZINIEGAKO UDALA

AKTA

Saioa: Ohiko osoko bilkura
Eguna: 2020ko urtarrilak 16
Ordua: 10:00 – 11:40
Tokia: Udaletxeko Bilkura Gela

Bertaratuak:

Joseba Mirena Vivanco Retes
Zuriñe Frutos Gutierrez-Barquin
Unai Gotxi Kastrexana
Arkaitz San Jose Martinez
Alazne Lafragua Ureta
Encina Castresana Astarloa
Miren Izaskun Perez Barragan
Jose Miguel Vadillo Ribacoba
Joseba Elejalde Ribacoba

M^a Ascension Hormazabal Meabe, Idazkari eta Kontu-hartzailea.

Saioa hasita eta lehendakariak publikotzat jo ostean, 10:00etan, gai-zerrendako puntuak ezagutarazi dira, eta akordio hauek hartu dira:

Alkatea: Kaixo, egun on. Ongi etorri bi mila eta hogeiko lehenengo ohiko sesiora. Gaurkoan, bi mila eta hemeretzi abenduako hemeretzi ospatutako ez ohiko sesioaren akta onartuko dugu. Horrez gain, bi mozio jorratuko ditugu. Bata hurrengo urtarrilaren hogeita hamarrek greba orokorraren inguruan, eta bestea Glefaran enpresaren kutsaduraren aurkako eta Enkarterriko auzokideei solidaritatea adierazteko mozioa. Egun on. Hel diezaiogun 2020ko lehen ohiko saioko gai-zerrendari.

1.- 2019ko abenduaren 19an egindako Saioko Akta onartzea.

Alkatea: aktaren inguruan ezer aipatu nahi baldin baduzue.

Aldeko botoak:

Joseba Mirena Vivanco Retes, Zuriñe Frutos Gutierrez-Barquin, Unai Gotxi Kastrexana eta Alazne Lafragua Ureta, EHBildu taldekoak (4); Encina Castresana Astarloa, Jose Miguel Vadillo Ribacoba eta Miren Izaskun Perez Barragan, EAJ alderdikoak (3);

Kontran:

Batere ez.

Abstentzioa:

Arkaitz San Jose Martinez, EHBildu alderditik (1); Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderdiko zinegotzia (1);
Onartuta geratu da.

2.- EH Bilduren mozioa, Lan- pentsio- bizitza-duinen aldeko urtarrilaren 30eko Greba Orokorrari buruzkoa.

Arkaitz San Jose Martinezek mozioa irakurri du:

**“LAN-PENTSIO-BIZITZA DUINA, URTARRILAK 30, GREBA OROKORRA.
UDALBATZARI MOZIOA**



Lan- pentsio- bizitza-duinaren aldeko greba babesteko ebazpen proposamena.

ZIOA

Duela sei urte, sindikatu eta eragile sozial ugari herritarren eskubide sozialak biltzen dituen

Karta osatu zuten, prozesu parte-hartzaile baten bidez. Orduz geroztik eskubide horien aldeko ekimenak antolatu ditu.

Bestetik, Hego Euskal Herriko pentsiodunen mugimenduak bi urte daramatza pentsio duinen

alde astero mobilizatzen; bide horretan, pentsioen eremuaz gaindi, modu zabalagoan "planto" egiteko beharra plazaratu dute, euren aldarrietatik harago joateko asmoz.

Orain, aipatu planteamenduaren haritik, mugimendu bien arteko konfluentzia eman da, pentsiodunen eta Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartaren artekoa, alegia, lan baldintza, pentsio eta bizitza duinaren aldeko borrokari aurre egiteko.

Konbentzimendu hirukoitz batek batu ditu: batetik, pentsioena denon afera da, oraingo pentsiodunena nahiz etorkizunekoena; bestetik, lan baldintza duinen aldeko borroka ezinbestekoa da; azkenik, eskubide sozialak bermatu behar dira. Finean, bestelako eredu sozio-produktiboa eraiki behar dugu, bizitza erdigunean jartzeko, zaintzari eta planetaren jasagarritasunari lehentasuna emanez.

Ezarriak dituen ardatz nagusiekin bat egiten dugu, alegia: aberastasunaren birbanaketa, sektore publikoaren lidergoa, eskubideen unibertsaltasuna, euskararen normalizazioa, lurraldeen arteko oreka, jendartearen beharren arabera antolakuntza (lehen sektorea, azpiegiturak, merkantzien eta garraio sektorea...).

Horregatik, Euskal Herriko Karta Sozialak pentsiodunen mugimendurekin batera adostu duen

Aldarrikapen Taularekin bat eginez, ondorengo ebazpen proposamena aurkezten dugu.

EBAZPEN PROPOSAMENA

Aurreko guztia kontuan izanik, Artziniegako Udalbatzak proposatzen du:

- 1.- Lan- pentsio- eta bizitza-duinaren aldeko grebari bere atxikimendua adieraztea.*
- 2.- Lan- pentsio- eta bizitza-duinaren aldeko greba egin ahal izateko erraztasunak eskaintzea Udaleko langileei*
- 3.-Euskal Herriko Karta Sozialak pentsiodunen mugimendurekin batera adostu duen Aldarrikapen Taularekin bat egitea, eta horregatik*
 - 3.1. Madrilan osatuko den Gobernuari eskatzen dio*
 - 2011 eta 2013ko erreformetan onetsitako pentsio-murrizketak indargabetzea*
 - Zapateroren eta Raxoiren lan-erreformak bertan behera uztea.*
 - Presazko izaeraz Seguritate Sozialaren eta Enplegurako Politika Pasiboen gaineko eskumenak transferi ditzala.*
 - 3.2. Halaber, Gasteizeko Jaurlaritzari eskatzen dio*
 - 1.080 euroko gutxieneko pentsioa ezartzeko neurriak presazko izaeraz ezar ditzatela.*
 - Hileko 1.200 euroko gutxieneko soldata ezartzeko neurriak abiatu ditzatela.*
 - Hitzarmen kolektiboetan ultraktibitate mugagabea eta herrialdeko hitzarmenen aplikazioa estatu mailako hitzarmenen gainetik lehenetsiak izan daitezen sustapen lana burutu dezatela.*
 - Lanera bizirik itzultzeko eskubidea bermatzea.*
 - Lan Ikuskaritzako plantillak handitzea, Europar Batasunekoekin parekatu arte, eta lan-istripuen eta laneko gaixotasunen aurkako ekintza planak abiatzea.*



- *Lan-harremanetarako eta babes-sozialerako esparru propioaren aldeko neurriak abiatzea.*

3.3. Erkidego eta Lurraldeko Gobernuari eskatzen die

- *Gizon eta emakumeen arteko soldata-arrakala eta pentsio-arrakala amaitzeko neurri zehatzak aktibatu ditzatela.*
- *Enplegu egonkorra sustatzea eta kontratazioan ematen den iruzurra zigortzea.*
- *Soldata gutxitu gabe lanaldia 35 ordura jaisteko neurriak abiatzea.*
- *Bereziki emakumei ezartzen zaizkien lanaldi partzial inposatuak ezabatzea.*
- *Zerbitzu publikoak garatzea, ezarritako murrizketak atzera botatzearekin batera.*
- *Kontratazioan sexuaren, jatorriaren, ideologiaren, sexu-identitatearen, aniztasun funtzionalaren edo ekonomia-jardueraren arabera diskriminaziorik egingo ez dela bermatzea.*
- *Klausula sozialak ezartzea administrazioko kontratazio guztietan.*

Alkatea: horri buruzko aipamenik baldin badago, Josebarekin hasita.

Joseba Elejalde Ribacoba: nire taldetik kontrako botoa emango dugu. Hemen zio asko nahasten dituen azalpen bat egin da. Ni Toledoko itunak adierazten duenaren arabera pentsioen balioa igotzearen alde nago eta horretarako mahai honetan eratuta dauden talde ezberdinek lan egin beharko dute alarguntza-pentsioak edo kontribuzio-mailaren arabera ez diren pentsioak pertsona horiek bizi duina izateko behar adina igo daitezten. Mozioko gainerako edukiri dagokionez, gauza askotan ez nago ados eta horregatik emango dut kontrako botoa.

alkatea: orain EAJ udal taldea.

Miren Izaskun Perez Barragan: EAJ taldeak mozio honen aurrean duen jarrera orain azalduko dugu. Ezezo botoa emango dugu, zergatik?

"1.- Greba politiko bat da, kolektibo batzuen mugimenduak eta, batez ere, aurten Euskadin hauteskundeak ditugula aprobetxatu nahi duena.

2.- EAJ taldeak ez du greba-deialdi hau babesten, non guztia nahasten baita; pentsioak, gutxieneko soldata, murrizketak, etab., hori guztiori Estatuko gobernuaren eskumenekoa eta, halere, greba Euskadin deitzen da.

Tiradera berean sartzen dira Estatuko Gobernuak, Euskadiko Jaurjaritza eta Nafarroako gobernuak eta badakite ez dela horrela, eskumenak Estatuko gobernuarenak direla soilik. Baina, EAJ taldetik ez dugu utziko manipula gaitzaten, engaina gaitzaten, eta hau pentsioak edo gutxieneko soldata hobetzea lortzeko bidea dela sinestarazi gaitzaten.

Bidea badakigu zein den, urratu dugu eta arrakastaz, zaratarik eta grebarik gabe EAJ alderdiak 2018an lortu zuen, Estatuko aurrekontuak NEGOZIATUZ:

- *KPI igoerak pentsioetarako 2018an eta 2019an.*
- *Gutxieneko Pentsioen eta kontribuziokoak ez direnak igotzea, % 3.*
- *Alarguntza-pentsioak Arautzeko Oinarrian aldaketa oso onuragarriak, pentsioak % 52tik % 56ra pasaz 2018an eta % 60ra iritsiz 2019an.*

- *Pentsioak murriztea ekidin zen, "jasangarritasun-faktorea" 2023ra arte baliogabetuz.*

3.- EAJ alderdiak eskumeneko erakundeetan lan egiten du eta lan egingo du, helburu hauekin:

- *pentsioen sistema publikoa defendatzea Ongizate Egoeraren zutabeetako bat dela iritzi.*

- *duinak, bidezkoak eta askiak izango diren pentsioen sistema bat bermatzea, pertsona guztientzat bizi-baldintza duinak ahalbidetzekoa.*

- *Toledoko Itunaren bultzatzea, lehenbailehen sistemaren iraunkortasuna eta Gizarte Segurantzaren Pentsio Sistemaren Iraunkortasun faktorea eta errebalorizazio indizea arautzen duen 23/2013 Legea aldatzea ziurtatzeko pentsio arloko neurriak martxan ipintzea lortzeko.*



- *Eros-ahalmena eta pentsioen iraunkortasuna ziurtatzea, gutxienez, KPI indizearen araberako eguneraketa errespetatuz.*
- *Euskadirako Autonomia Estatutua onartu zuen abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoko 18.2. artikuluan eta bosgarren Xedapen Iragankorrean xedatuarekin bat etorriz, lor dadila Euskal Autonomia Erkidegora transferitu daitezela Gizarte Segurantzako araubide ekonomikoaren kudeaketari dagozkion eskumenak.*

Finean, Greba Orokor hori EAJ taldeak ez du babestu, eta ekimen hori ere ez du babestuko, beraz, gure botoa ezezkoa izango da”

Arkaitz San Jose Martinez: beno, besterik gabe, testuinguruan ipintzeko, eztabaida bat ere ez du nahi egin. Edozein kasutan, greba politika dela onartzen dugu, izan ere, greba guztiak eta borroka sozial guztiak politikoak dira, jakina, ez alderdikeriak. Uste dut batzutan politika eta alderdikeria nahastu egiten ditugula. Hau greba politiko bat da, izan ere, hobekuntzak lortu nahi dira eta klase politikoari eragiten dien aldaketak egitea, langileen eta pentsiodunen eskubideak aitortzeari dagokionez. Eta eskumenen kontuari dagokionez, bakoitzak dituenak. Proposamen honetan jasotzen da, noski Estatuaren baitakoak diren eskumen asko daude, hain zuzen ere, horietako batzuk ez daudelako transferituta hala egon beharko luketenean, baina gizarte zibilak eta lan esparruan aritzen diren sozietateek erakundeei egindako eskaera da. Eta beste batzuetan guk gure erantzukizunak hartu behar ditugun bezalaxe, gainerako erakundeei ere dei egiten zaie, dagokien neurrian, berenak har ditzaten. Horregatik guztiagatik, eta gainera aspaldidanik egiten den lan bat denez, bat ez ere Euskal Herriko karta sozialaren gaia, guk helarazi eta babestu egiten dugu.

Alkatea: besterik ez baldin badago, EH Bildu taldeak aurkeztutako Mozioa bozkatuko dugu:

Aldeko botoak:

Joseba Mirena Vivanco Retes, Zuriñe Frutos Gutierrez-Barquin, Unai Gotxi Kastrexana, Arkaitz San Jose Martinez eta Alazne Lafragua Ureta, EHBildu taldekoak (5);

Kontran:

Encina Castresana Astarloa, Jose Miguel Vadillo Ribacoba eta Miren Izaskun Perez Barragan, EAJ alderdikoak (3); Joseba Elejalde Ribacoba P.P. alderdikoa (1);

Abstentzioa:

Batere ez.

Onartuta geratu da.

3.- EH Bildu taldearen mozioa, Enkarterrietako auzotarrekin elkartasuna adieraztekoa Glefaran enpresaren kutsadura dela eta.

Alkatea: mozio hau, zuzenean eragiten ez badigu ere, Enkarterrietako EH-Bildu taldetik gure udal taldera helarazi duen mozio bat da, oraintxe bertan enpresa jakin horrekin lotuta ingurumen-arazoak direla eta, eskualde horretan egiten ari diren mobilizazioen barruan. Enkarterrietako udaletan aurkezten ari diren mozio bat da, guztia urtarrilaren 25ean, uste dut, Enkarterri ingingo den manifestaldi batean batzen da, eta kasu honetan esan dezagun eskualdeko udalerrri bizilagun modura eskaera helarazi digute gure elkartasuna adieraz dezagun edo ez egiten ari diren aldarrikapenekin, kasu honetan, denbora batez zona horretan enpresa zehatz horren arazoarekin lan egiten ari den herritarren plataformari begira apur bat. Arkaitz San Jose Martinezek mozioa irakurri du:

“ARTZINIEGA EH BILDU TALDEAREN MOZIOA, GLEFARAN ENPRESARI BURUZ

“Gure alboko eskualdeko bizilagunok Enkarterri borrokan da Glefaran biomasa enpresa osasunean eta ingurumenean egurrak erretzearen bidez energia ekoizteko jarduerarekin jaurtitzen dituen ke eta errautsen ondorioz uzten ari den eraginen aurka.



2016an Glefaran biomasa errekontza enpresa martxan jarri zutenetik kezka handia sorrarazi du osasunean eta ingurumenean izan ditzakeen eraginak direla eta.

Enpresa hori Gueñes eta Zalla artean dago lekutua, bi hirigune horietatik metro eskasera, beraz, horiek enpresatik irteten diren ke eta errautsen eraginpean daude.

Herritarren presioak eraginda Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailak enpresari neurri jakin batzuk ipintzea lortu bada ere, egindako irizpen tekniko independente baten arabera, ez dira aski izan Glefaran enpresaren jarduera osasunerako eta ingurumenerako kaltegarria ez dela adierazteko. Horrekin kezkatuta, eragindako auzotarrak, Gueñes Bizia Plataformaren barnean, manifestaldi bat deitu dute 2020ko urtarrilaren 25erako "Gure Osasunaren alde" lelopean.

Beraz, gure alboko eskualdea den Enkarterrietako auzotarren eskaerekin elkartasuna adieraziz, Artziniegako Udalbatzan aurkezten dugu hurrengo

MOZIOA:

Artziniegako Udalbatzak alboko eskualdea den Enkarterrietako auzotarrekin elkartasuna adierazten du osasunean eta ingurumenean eragiten ari diren inpaktuen aurka eta Glefaran enpresaren jarduerarekiko kezkaekin bat eginez, eskumeneko erakundeei irtenbide bat eskatuz berehala honakoei heltzeko:

- 1. **Jarduera bideragarri bilakatzeko** plan bat garatzea, inplikaturako eragile guztiak barne hartuz, hots, Eusko Jaurlaritza, Bizkaiko Foru Aldundia, Zalla eta Gueñeseko Udalak eta Glefaran enpresako Kudeatzaileak, egungo jarduera osasunerako eta ingurumenerako kaltegarria ez den beste batekin ordeztzea ahalbidetzeko, egun dauden lanpostuak mantenduz eta lanpostu berrien sorrera bultzatuz.*
- 2. Inplikatura dauden eragile guztiak barne hartuz, hots, Eusko Jaurlaritza, Bizkaiko Foru Aldundia, Mankomunitatea eta Enkarterrietako Udalak, eskualdea **berriro aktibatzen EGIAZKO PLAN** bat garatzea, sozialki eta ekonomikoki iraunkorra izango den eta ingurumena zainduko duen industria bat txertatuz".*

Alkatea: horri buruzko aipamenik baldin badago, Joseba.

Joseba Elejalde Ribacoba: nik, besterik gabe, ez dakit enpresaren arazoa zehatz-mehatz zein den. Egia da, mozioan adierazten denaren arabera, irizpen tekniko independente bat dago eta pentsatzen dut Zallako auzotarrek eskatuko zutela. Bertan jasotzen denez, neurri zuzentzaileak ez dira nahikoak, baina noski, betikoan gaude, lehendabiziko puntuan eragile guztiak barne hartuz garatzeko eskatzen da, berriro jarduera bideragarri bihurtzea eskatuz. Nik ez dakit fabrika hori eraldatzea bideragarri izan daitekeen ala ez. Eta noski lanpostuak mantentzeko esaten da. Guk enpresari, eta ez dakit jarduera bideragarria izan daitekeen beste neurri zuzentzaile batzuekin, edo planta aldatuz, ez dakit ez baitakit nola funtzionatzen duen, baina pentsatzen saiatzen baldin bagara eraldaketa bat egiten, edo enpresa horretara eramanez, lanpostuak mantenduko direla. Agian enpresa horrek itxi eta beste norabait alde egiten amaitzen du. Beraz nire ustez, mozio honi dagokionez, datu guztiak izan gabe abstentzioa emango dut, izan ere, ez dut onartu datorren testuinguruan. Ez dakit neurri zuzentzaile berriekin planta hori bideragarria ote den eta, horrenbestez, lanpostuak mantendu daitezkeen edo, planta horri beste neurri zuzentzaile batzuk eskatzen baldin bazaizkio, betiere, legearen arabera izanik, bada planta horrek errentagarri izaten jarraitu dezakeen ala ez, eta horren arabera beste zona batera joan daitekeen edo lanpostuak mantenduz jarraituko duen. Nik, zalantza horien aurrean, abstentzioa emango dut. Era guztietara, izan dezaketean arazoarekin nire elkartasuna adierazten dut, paper planta zegoenean egon zitekeenaren antzekoa izango dena apur bat. Azken batean nik ulertzen dut, ni Coenen ikasten aritu naiz eta hori jasangaitza da. Baina noski, niri azken batean datuak falta zitzaizkidan mozioa onartzeko.

Miren Izaskun Perez Barragan: EAJ taldetik zuzenketa bat aurkeztu dugu gaur goizean eta irakurri egingo dut:

"EAJ TALDEAREN ZUZENKETA GLEFARAN ENPRESAKO MOZIOAREN AURREAN

EAJ udal taldetik bat egiten dugu EAJ eta PSE taldeek GLEFARAN enpresaren egoerari dagokionez aurkeztutako mozio bateratuarekin, jarraian azaltzen duguna:

Lehenago PASTGUREN paper fabrikak duela zenbait hamarkadaz geroztik paper oreka ekoiztearen ondoriozko txirbilak, geruzak eta likido beltzak erretzeko galdara bat zuen. Haren



egitekoa plantak funtzionatzeko eta paper orea ekoizteko prozedurako beharrezkoa zen ur lurruna sortzea zen.

2007an lurrun hori bere funtzionamendurako ez ezik, birsorkuntza-sistema baten bidez energia elektrikoa banatzeko aprobetxatzeko lizentzia eskuratu zuen. Eta 2008an Eusko Jaurlaritzak bere jarduera guztietarako Ingurumen Baimen Integratua onartu zion. Egoera hori normaltasunez mantendu zen 2009. urtera arte. Orduan enpresa konkurtso-prozesu batean sartu zen. Eta birsorkuntza-jarduera 2010eko martxora arte mantendu zen.

GLOBAL EFICIENCY ARANGUREN S.L. sozietateak 2014an instalazioak eskuratu ondoren, enpresa berriak paper orea fabrikatzeari uko egin zion, eta xatarra pilotzeko baimena eskatu zuen eta birsorkuntza planta berri martxan jartzeko lanei ekin zien 2016ko amaieran.

Prozesu horrek eragin larriak ekarri zituen herritarrentzat errausen emisio onartezinekin. Horren ondorioz, gizarte mobilizazioak sortu ziren eta erakundeek esku hartu zuten. Eusko Jaurlaritzak, eskumenerako agintaritza modura, airearen kalitatea aztertu du eta hainbat eskakizun ipini dizkio enpresari arloan indarrean den araudia betetzen dela bermatze aldera.

Hori dela eta:

1.- Artziniegako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Saiari egurra errausteko prozesuan sortzen diren emisioak egokitzeari begira kontrol eta jarraipenerako bere lana garatzen jarrai dezala, aplikagarri den araudian ezartzen diren Estatuko parametroen arabera.

2.- Edozein kasutan, eta klima-aldaketaren aurkako borroka, ingurumenarekiko errespetua eta osasunerako eskubidea Espainiako Gobernuak partekatutako printzipio modura definitu direnez, Artziniegako Udalak Espainiako Gobernuari hertsatuki eskatzen dio aplikagarri den araudian parametro horiek doitu eta murrizteari dagokionez jasotzen diren eskakizunak beteazten jarrai dezala.

3.- Artziniegako Udalbatzak hertsatuki eskatzen die eskumenerako administrazioei Enkarterrietako eskualdean industria sustatzera bideratutako esku-hartzeak gara ditzala, ekonomia zirkularreko estrategiak eta 4.0. industria sustatuz.

4.- Artziniegako Udalbatzak osasunarekiko eta ingurumenarekiko bere konpromisoa erakusten du udal esparruko lehentasun modura.

5.- Akordio hau inplikaturako erakundeei igorriko zaie”.

Arkaitz San Jose Martinez: ongi dago birsorkuntza-plantaren azterketa historikoa, ondoren biomasa deitu zena. Azkenean, izen horiekin, ura berotzeko elektrizitatea ekoizteko asmo egurra erretzea da kontua, jakina, elektrizitatea sortzeko lurruna ekoizteko. Orain bertan Glefaran enpresan duten arazoa da ez dagoela neurketarik, noski Eusko Jaurlaritzak egiten dituen neurketetan, airearen kalitatea aztertzeko dituen metodoekin, 2,5 mikratik gorako partikulak neurtzen dira. Beraz, diotenez, grabitateagatik beragatik lehenago erortzen dira eta atmosferan horrenbeste barreiatzen ez direnez, egoera zuzena da. Plataformek eta mobilizatuta dagoen jendeak eskatzen dutena da ez dagoela neurketarik partikula finak eta ultra-finak neurtzeko, hau da, ez dagoela jakiterik, partikula handienetatik harago, noraino iristen ari diren eta zer arnasten ari diren. Orduan, hori da apur bat Eusko Jaurlaritzari egiten zaioen eskaera. Eta ondoren jada, kontsiderazio orokorragoei helduz, klima-aldaketaren aurkako borrokaren inguruan eta abar planteatu duzuenari buruz, bada tira, egurra erretzea ez da metodo onena atmosferan barreiatuko den CO2 ez ekoizteko. Edozein kasutan, ez gaude plantaren aurka, kontrol-neurri gehiago egotearen alde gaude. Eta gure egin dezakegu Enkarterrietako industria babesteko planteamendua eta baita Artziniegakoa ere jakina, baina noski, indarrean dauden lurraldea antolatzeke jarraibideetan erreparatzen duzu eta ikusten duzu Eusko Jaurlaritzak Enkarterrietako eskualdeari eta Artziniegari zein deiera esleitzen dion, bigarren bizitegi deiera da. Orduan noski, ondoren bi mila eta piku urtean hori onartzen dute, eta ondoren ikusten dugu nola ari den industria desegiten, hala Enkarterrietan nola Artziniegan eta, diogu, nola liteke? Nola liteke? Bada hasiera batetik, lurralde antolatzeke jarraibideetan, ikusiko dugu zer gertatzen den orain eztabaidatzen ari diren berriekin, izan ere, bizitegi deiera edo bigarren bizitegikoa ipintzen dizu Artziniegan bezala. Ondoren ikusten dugu eskualdean industria husten ari dela eta esaten dugu, Nola liteke? Nola liteke?; lurraldearen antolamendurako jarraibideetan



barneratzen delako, hor adierazten baita nola egituratuko den lurraldea. Orduan gure egin genezake, edozein kasutan guk dakarkigun proposamena birtuala dela uste dugu, orduan guk gure dagoen bezala mantentzea proposatzen dugu.

Alkatea: biak bozkatuko ditugu.

Mozio nagusia bozkatu da.

Aldeko botoak:

Joseba Mirena Vivanco Retes, Zuriñe Frutos Gutierrez-Barquin, Unai Gotxi Kastrexana, Arkaitz San Jose Martinez eta Alazne Lafragua Ureta, EHBildu taldekoak (5);

Kontran:

Batere ez.

Abstentzioa:

Encina Castresana Astarloa, Jose Miguel Vadillo Ribacoba eta Miren Izaskun Perez Barragan, EAJ alderdikoak (3); Joseba Elejalde Ribacoba P.P. alderdikoa (1);

Onartuta geratu da.

Mozio alternatiboa bozkatu da.

Aldeko botoak:

Encina Castresana Astarloa, Jose Miguel Vadillo Ribacoba eta Miren Izaskun Perez Barragan, EAJ alderdikoak (3);

Kontran:

Batere ez.

Abstentzioa:

Joseba Mirena Vivanco Retes, Zuriñe Frutos Gutierrez-Barquin, Unai Gotxi Kastrexana, Arkaitz San Jose Martinez eta Alazne Lafragua Ureta, EH Bildu taldekoak (5) taldekoak; Joseba Elejalde Ribacoba, P.P. alderdikoa (1);

Onartuta geratu da.

Alkatea: egia da, eta berriro diot aurrekoan egin nuen moduan, ez dakit aurreko osokoan izan ote zen, halako zuzenketak zertxobait lehenago izatea gustatuko litzazukeela, gehienbat aztertu ahal izateko, eztabaidatu ahal izateko. Zerbait bederen, izan daiteke aurreko egunean, ordu batzuk lehenago, eta nik eskertuko nuke oposizioko edozein taldek zertxobait lehenago helaraztea aztertu ahal izateko, gehienbat apur bat... eztabaidatzeko aukera hori izateko, izan ere, azken batean, mozioetan ezetz esaten amai dezakegu aipatzeko ere nahikoa denbora ez dugulako.

Miren Izaskun Perez Barragan: beno, gure eskualdeari eta gure udalerriri ez dagozkion mozioak direnez, zain egon gara... guk beste alderdi politiko batek aurkeztutako mozio batekin bat egin dugu, baterakoa eta beste eskualde batekoa, orduan horregatik ibili gara juxtu samar. Eta horrez gain, osokoaren dokumentazioa astelehenean sartu zen, orduan guk astelehenean zuen mozioa ikusi genuen jada, orduan gutxi gorabehera ibili gara...

Alkatea: ez, esan nahi dudana da besterik ezean ordu batzuk lehenago bidali izan bazenigute, behintzat horretaz aipatzeko denbora bat izango genuke.

Miren Izaskun Perez Barragan: bai, baina tira.

4.- Alkatetzaren ebazpenak jakinaraztea.

Alkate jaunak, idazkariak lagunduta, 2019. urteko 271. eta 301-377 bitarteko Dekretuak direla jakinarazi du.

Zinegotzi bertaratuak jakinaren gainean daude: Joseba Mirena Vivanco Retes, Zuriñe Frutos Gutierrez-Barquin, Unai Gotxi Kastrexana, Arkaitz San Jose Martinez eta Alazne Lafragua Ureta, EH Bildu taldekoak (5); Encina Castresana Astarloa, Jose Miguel Vadillo Ribacoba eta Miren Izaskun Perez Barragan, EAJ-PNV (3) alderdikoak; Joseba Elejalde Ribacoba P.P. taldekoa (1);



5.- Udal kudeaketaren kontrola.

- Joseba Elejalde Ribacoba: bi kontu, azken ohiko saioan zenbait galdera egin nizkizun 2015ean onartu zen Udalhitz zela eta, hainbat galdera egin nituen gaiaren inguruan, zenbat kostatu ote zen. Orduan oposizioiko taldean zeunden EH-Bilduko bozeramaile modura. Zein neurritakoa da, zure ustez, udal honetan epaileak emandako irizpenaren aurretik egin behar izan dugun ordainketaren inguruan duzun errua? Eta apur bat kontua zen osoko honetan erantzungo didazun ala ez, edo hurrengoan. Izan ere, nik ulertzen dut zuk osoko hartan idatziz sartzeko esan zenidala, baina ulertzen dut osoko batean egindako galdera bati osoko horretan bertan ez didazula erantzun behar, baldin eta galdera hiru egun lehenago egiten ez bada, baina bai hurrengo osokoan, hau bezalako ohiko bilkura batean bada irizpen bat eman diezadakezu zuk Alkate modura EAJ taldeko aurreko Alkatearen eta Bildu taldeko bozeramailearen artean hartu zuten erabaki harrek suposatu zuenari buruz.

Alkatea: bai, berehala esango dizut. Hurrengo osokorako zenbakiak prestatu genituen. Ascenek prestatu zituen, zenbakiak helarazi zizkidan baina hurrengo ohiko bilkuran ezin izan zenuen etorri eta ohiko bilkura horretan zuri esateko prestatuta nituen, baina egia esan orain hemen ez dauzkagu. Baina zenbakiak eginda zeuden.

Joseba Elejalde Ribacoba: hurrengorako utziko dugu.

Alkatea: bai, prest daude gainera. Asceni esan nion, prestatu zenbakiak, zenbat kostatu den...

Joseba Elejalde Ribacoba: zenbakiak ez ezik, udalerrri honetako auzotarrei kostatu zaiguna, erabaki okerra dena, nik egun hartan bilkuran planteatu nuen moduan, Legearen aurkakoa zela, Estatuko aurrekontu orokorren aurkakoa zela, gustatuko litzaidake jakitea era berean, nahi baduzu zenbakiekin batera esan diezadakezu, zein den zure balioespena. Une hartan EH-Bildu taldeko bozeramaile modura eta une honetan Alkate modura. Azken batean Artziniegako Udaleko herritarrak beste behin diru bat ordaindu beharrean gaude epai batengatik alde zuzen aurretik jakinik egiten dena bidegabea edo legez kanpoko delatuta, banderen gaiari heldu diezaioket berriro Agurtzanerekin, hori ere askotxo atera baitzitzazun, 4.000 eurotik gora, eta noski, eta gai horietan badakigu Udaletik egiten dena legearen kontrakoa dela, baina hala ere egin egiten ditugu. Eta azkenean zerbitzuen juridikoen taldeak estali behar gaitu... Eta azkenean zenbait kosta ordaintzen egon beharrean gaude eta zenbait zehapen, non azken batean diru guzti hori Artziniegako herritarrak egiaz behar duenera bidera zitekeenean, zoladurak konpondu, mendiak garbitu edo beharrezkoa denerako. Eta horregatik Alkate modura balioespen bat egitea gustatuko litzaidake. EAJ taldeari ere bere balioespena eska diezaioket, bertan dagoen zinegotziari, bere aldea ere izan zuen eta, errua esan behar dut errua izan baitzen, azken batean zer zegoen jakinda eta Idazkariak, Ascenek, jakinarazi zigun moduan txosten tekniko bat egonik, bada txosten tekniko horretan adierazten zen onartu behar zela ez zatorrela Legearekin bat, bada hori ere ez genuen kontuan izan, edo ez zen kontuan izan, aurkako botoa eman zuen bakarria Alderdi Popularreko zinegotzia izan zen, eta lohi horietatik putzu hau, edo putzu horietatik lohi hau, baina esan nahi dizut azken batean nahiko nuke jakin zure denborarekin, ez daukazu zertan gaur erantzun, baina gustatuko litzaidake jakitea zuk une honetan Alkate modura zer pentsatzen zenuen lehen eta zer orain, eta zein izango dira halako gaien gainean Udal honetan izango ditugun lan egiteko moduak. Izan ere, azken batean ulertzen dut badirela borrokatu eta lehiatu behar ditugun kontuak, baina beste batzuk, kasu honetan bezala, alde zuzen aurretik jakinik ez datorrela bat Legearekin, gorpiletan makilak ipintzen hasten gara eta irizpide oro galtzen amaitzen dugu eta kostak eta prokuradore bat ordaindu behar ditugu, eta abokatuak eta abar, eta Artziniegako herritarrentzat horrek diru bat suposatzen du, bada niri egiaz horrek kezkatu egiten nau.

Alkatea: besterik gabe, azkar batean, zenbakiak begiratuko dizkizugu berriro eta helaraziko dizkizugu, baina jakina orduan, edo etorkizunetan, Udal honetan badira erabaki batzuk, izan oposizioetik edo izan Gobernutik, azken batean arrazonamendu politiko argia dutenak, hau da, irizpide politiko batzuen arabera hartzen ditugu erabakiak. Gaur egun ikusten ari gara beste erakunde batzuek beste leku batzuetan eta beste toki batzuetan erabakiak hartzen dituztela,



Damoclesen ezpata gainean dutela ere bai, eta politikoak diren erabakiak hartzen dira, eragin bat eta ondorio batzuk dituztenak. Kasu honetan neurri hori babesteko hartzen den neurria, jakina politikoa da, beste Udal batzuetan hartu zen moduan, zeuden eskaera batzuk babesteko modu bat zen era berean, funtzionarioen artetik zeuden eskaera eta premia batzuk, ez soilik Artziniegako aldetik, baizik eta funtzionarioen aldetik orokorki, udaletxe guztietan aurkeztzen zen mozio bat zen, Eudelek ere babestu eta defendatu egiten zuen mozio bat zen, kasu hartan Eudelek berak erabaki hori babesten duenean badaki eragozpenak daudela, oztopoak daudela badaki, jakinik arazo bat egongo dela erabaki politiko bat denarekin, hau da, erabaki politiko bat, non aldarrikatzen ari den, baita ere, ziurrenera hemen erabaki ahal izateko eta mekanismoak ezarri ahal izateko, batez ere orduan, Madriletik hartzen ari ziren erabaki batzuen aurrean plan ekonomiko baten barruan, non egia den krisi egoerakoa zela, mugatua, non traba asko ipini zituzten, non Udalean ere, Udal honetan ere ikusi baitugu azken batean trabak zeudela gai ekonomikoan funtzionatzeko eta orduan azken batean... hau da, ez da erabaki bat hartzen duzula eta Legea urratzen duzula hirigintza arloan inor baino burugogorragoa zarelako, edo babestu egiten duzulako. Ez, azken batean kutsu politiko bat du, banderen gaiarekin aipatu duzun moduan, badakizu etzi etor daitekeela ala ez, dagokion Gobernuko Delegatua eta esan "aizu, hau ez da legezkoa". Baina erabaki bat hartzen baldin baduzu, azken batean arrazamendu batzuekin hartzen duzu, argudio batzuekin eta jarrera politiko batekin, ez ziurrenera zehatz-mehatz badakizulako "ez, arrazoia izango dut % 100ean izapide honetan, eta bide honetan". Hartu egiten duzu, beno, ondorioak daudela? Bai, ondorio ekonomikoak egon daitezke, beste era bateko ondorioak egon daitezke eta gaur ikusten ari gara sozialki beste leku batzuetan beste era bateko ondorioak ere badirela hartzen diren erabaki politikoengatik, eta azken batean ez dago argudio gehiagorik. Erabaki politiko bat funtzionarioen aldetik zeuden eskaera batzuk babestea, kasu honetan, funtzionario euskaldunak. Ondoren erantzukizunak hartu behar dituela norberak? Jakina, dauden ondorioen erantzukizun politikoak hartzen dituzu zuregan. Baina argi dago arrazamenduak horiek direla.

Joseba Elejalde Ribacoba: Joseba, irizpide politikoak jakina, hemen beti esaten den moduan dena da politika, eta jakina bakoitzak irizki politiko bat izan dezake alderdi batek edo beste batek osoko honetan aurkez dezakeenaren inguruan, edo adostutako neurrien inguruan edo Estatu mailan edo Euskadi mailan adostutako Legeen inguruan. Baina irizpide politikoekin zuk ezin dituzu legeak urratu nahieran. Hau da, niri irizpide politiko bat oso ongi iruditzen zait, zuk irizpide politiko bat izan dezakezu espaloi bat egiten duzunean, errepide bat, edo funtzionarioei soldata igotzen diezunean. Nik uler dezaket zuk irizpide hori izatea, edo funtzionarioen eskaerak babestea. Zuk azken batean, nik babes ditzakedan moduan edo beste pertsona batek babes ditzakeen moduan babes ditzakezu, beste kolektibo batzuen eskaerak babes ditzakegun bezalaxe, eta horiei ez zaie hainbeste begiratzen eta agian Udal honetan ditugunak baino arazo gehiago izango dituzte. Baina tira, nik esan nahi dizudana da edozein politikarik ezin ditugula legeak urratu. Legeak politikariek onartzen dituzte. Madrilen onartzen dira eta Eusko Jaurlaritzan onartzen dira, eta Udaletik errespetatu daitezzen ahalegindu beharko dugu. Ezin ditugu guk urratu. Zuri eta niri esaten badigute onartuko dena, eta gainera txosten juridiko bat badago non esaten den onartuko dena ez datorrela Legearekin bat, 2015ean onartutako Estatuko aurrekontu orokorrekin, bada orduan arazo bat dugu. Ezin dugu legea urratu. Legea urratzen baldin baduzu noski ondorioak izango dituzu. Inhabilitazioa, egin duzuna zer den ikusi ostean, isuna... Hemen aurrekari bat dago, banderak. Ez dakit lau edo bost urte egon ginen banderen kontura, niretzat laidogarriena da eraikin honetako usategian ikurrina ikustea, hori oso laidogarria iruditu zitzaidan. Laidogarria, eta euskaldun sentitzen naiz, eta hori nire bandera da, eta han goran ikustea ez nuen ulertzen. Eta Alkateari esan zioten arte inhabilitatu egin zezaketela hura gupil bat izan zen. Azkenik isun bat ipini zioten arte, udalerrri honetako herritar guztien artean ordaindu genuena, eta ondoren Alkateari apur bat belarriak tentetu zizkioten eta automatikoki banderak ipintzen dira dagoeneko. Ongi, bikain, kasu honetan berdin. Hau da, irizpide politiko bat, jakina. Baina ezin dugu Legea urratu. Eta Legean oso argi jasotzen da. Eta txosten juridiko bat zegoen. Beraz, nik azken batean uler dezaket irizpide politikoak egitea kontu legetarako, baina ez legea urratzeko. Niri ez zait zertan etorri hona Gobernuko Delegatua osteratxo bat ematera eta bat-batean ez dakit zer ikusi edo osokoa ohartu, izan ere,



azken batean hemen funtzionarioen soldata igoera bat onartu da Estatuko aurrekontu orokorren aurka doana. Orduan azken batean, irizpide politikoa izatea bai, baina gauzak ongi egiteko, ez Legea urratu eta gauzak gaizki egiteko. Azken batean bihar "ez, nik errepide bat egiteko irizpide politiko bat dut" esango bazen bezala da. Ez, hirigintza irizpideak daude ordea. Ez, ez, baina irizpide politikoa hirigintzakoaren gaineratik dago, urratu egingo dut eta ondoren etorriko dira Aldunditik, Eusko Jurlaritzatik, edo etorri behar duena, edo Ura, errepidea, esanez ordenantza urratu egin dudala. Baina noski, irizpide politiko bat denez egin dezaket. Ez, lehendabizi Legea dago eta ondoren irizpide politikoa. Eta irizpide politikoak legetan oinarritzen dira eta horiek urratu gabe.

Miren Izaskun Perez Barragan: ni, aipatu didazunez, azken batean apur bat Josebak esan duenaren ildotik, tira, funtzionarioek egiten zuten lan aldarrikapen bat defendatzen zen, eta aldarrikapen orotan bezala hemen igoera bat babestu zen. Eta zerbait legez kontrakoa da soilik epai bat dagoenean. Idazkariaren aldetik txosten juridiko bat zegoen, baina guk ere bagenituen Eudeletik babesten zituzten txosten juridikoak. Orduan legez kontrakoa da soilik epai irmo bat dagoenean, eta laneko eskubideak aldarrikatu nahi badira, orduan, gehiengoak non bukatzen du? Epaitegietan. Batzuetan epaiak aldekoak dira edo kontrakoak, baina horrek ez du esanahi, izan ere, azken batean nahasten ari zara, Legea urratzen dudala edo urratzen ez dudala, guk hemen onartu genuen, eta Josebak esan du, irizpide politiko batzuen baitan, gehiegizkoa eta neurritz gainera iruditzen ez zitzaigun soldata igoera bat. Epaitegi batek arrazoia kendu digu eta kito. Baina horrek ez du esanahi inhabilitatu egin behar gaituztenik eta Legea urratzen dugunik. Jarrera bat defendatzen dugu, Epaitegi batera eramaten da, epaitegitik bideratzen da, eta galdu egin genuen, eta galtzearen ondorioak onartu genituen. Eta kito. Horrek ez du esanahi Legea nahieran urratzen dugunik. Guk bagenituen gure txostenak, gure...

Joseba Elejalde Ribacoba: momentuz entzungor egiten ari zara txosten juridiko baten aurrea...

Miren Izaskun Perez Barragan: ez, entzungor ez.

Joseba Elejalde Ribacoba: bai, bai, barkatu. Txosten juridiko bati jaramon egiten ari zara. Zuk Udal honetako Idazkari - Kontu-hartzailearen txosten juridiko bat duzu eta zerbait... Idazkari - Kontu-hartzaileak txosten bat igortzen baldin badu eta txosten hori loteslea ez baldin bada, orduan akabo.

Miren Izaskun Perez Barragan: nik ez dut esan loteslea ez denik. Ez ipini nire ahotan esan ez dudana hitzik.

Joseba Elejalde Ribacoba: ez, ez, nire hitzak dira, nik ez dut esan zure hitza denik, nire hitz bat dela esan dut.

Miren Izaskun Perez Barragan: ez nahastu nire hitzak. Ez nahastu. Nik ez dut hori esan. Ez ipini nire ahotan esan ez dudana gauzik.

Joseba Elejalde Ribacoba: nik ez dut zure ahotan ipini hitzik... nik esan dut nire ustez Ascenek egiten duen txostena loteslea ez dela nik nahi dudana egin dezaket eta nire ustez egoki dena. Baina, Idazkari - Kontu-hartzailearen txosten bat baldin badago, kontuan izan beharko da.

Miren Izaskun Perez Barragan: noski, kontuan izaten dira.

Joseba Elejalde Ribacoba: eta nik Osoko hartan esan nuen "mahai gainean utziko dugu eta txostena aztertuko dugu", txosten hori ez zegoen dagokion batzordean Udalhitzien igoera eztabaidatzen aritu ginenean. Txosten hori gerora egin zen, eta ez zitzaigun osoko hartan bertan aurkeztu. Besterik gabe, Idazkari - Kontu-hartzaileak osoko hartan bertan aipatu zuen bazela txosten bat, nik eskatu nuelako, badago txostenik? Eta esan zuen, "bai, txosten bat dago". Txosten hori beranduago helarazi zitzaigun, eta nik osoko honetan esan nuen "zergatik ez dugu mahai gainean uzten". Une hartan Alkateak EH-Bildu taldeko bozeramailearekin hitz egin zuen, altxatu ziren, irten egin ziren, etenaldi bat egon zen, berriro sartu ziren eta onartu egin zen. Kito. Ez genekien txostenean zer jasotzen zen, agian Alkateak bai, nik pertsonalki ez. Ez dakit EH-Bildu taldeko bozeramaile modura Joseba Vivancok txosten horren berri ba ote zen, baina txosten bat baldin badago, nire ustez, loteslea dena, esanez onartuko dena ez datorrela bat Legearekin, legez kontrakoa edo legez kanpokoa izan daiteke, baina tira ez dator bat Legearekin eta belarriak tente ipini ahal dizkigute. Baina tira, bada belarriak tente ipini



dizkigute. Eta nik esan nuen "itxaron dezagun apur bat". Ez. Emaitza, ez dakit zenbateko kostua atera zaigun Artziniegako herritar guztioi kudeaketa txar hau, eta esan ahal zidan baietz, aldarrikapenak direla, noski, epai bat atera bitartean egiten ari zinela ez zela legez kontrakoa uler dezakezula. Beno, nik nire jarreratik, orain ez esan zure ahoan hitzik ipintzen dudarik, nire jarreratik, txosten juridiko bat baldin badago horrek dagoeneko asko esaten du onar daitekeenaren edo onar ezin daitekeenaren inguruan. Eta berriro diot, adibide bat ipiniko dut, nik hor etxe bat egin nahi dut, bada txosten tekniko bat egongo da eta txosten juridiko bat esaten didatenak "aizu, Joseba, ezin da egin". Ez, ez, bada nik egin egingo dut. Bada orduan zehapena duzu. Nik Legea urratzen baldin badut, zehapena. Udalak Legea urratzen baldin badu ez dago zehapenik. Horrelaxe baita. Guk Legea urratzen dugu eta ondorioak herritar guztientzat dira, ez da alkate ohiarentzat, ezta bere garaian Bilduko bozeramaile ohiarenentzat ere, ez, herritarrentzat dira. Herritarrok baikara zenbateko hori ordaindu behar dugunak. Eta horrela da. Eta zuk nahieran apain dezakezu. Nik esango dizut nik zer ulertzen dudan. Eta une hartan mahai gainean utz zitekeen, baina tira, presagatik edo dena delakoagatik, zuen alderditik eta EH-Bildu alderditik erabaki hura hartu zen. Eta putzu horietatik lohi hauek, eta gaur egun prokuradorea, abokatua, kostuak eta abar ordaindu behar izan ditugu, eta ez dakit zehatz-mehatz zenbatekoa zein izango den.

Alkatea: beno, ñabardura bat, ez da Udala zigortzen dela. Gai horren ondoriozko prozesu judizialaren gastuak dira.

Joseba Elejalde Ribacoba: bai, baina azkenean Udala da modu batera ala bestera...

Alkatea: beno, uste dut iritziak modu batera edo bestera zehaztuta geratu direla zenbakien zain. Beste ezer bazenuen, Joseba?

- Joseba Elejalde Ribacoba: bai, errefuxiatuen gaiari buruz, eta azkenean arazoak dituzten pertsonen buruz, jakin nahi nuen ba ote den protokolorik, beno une honetan badugu pertsona bat udalerrian, Christian izenekoa, bi hilabete inguru daramatzana eskean Palacioan. Lehenik eta behin arazo bat duen pertsona bat da, ez daki gaztelaniaz, bigarren arazoa da dokumentazioa galdu duela edo Nigeriako pasaportea Libia eta Italia arteko igaraldian. Italian amaitu du, Italian AIZ bat edo identifikazio-zedula bat egin zioten, eta Espainian amaitu du, herri honetan amaitu du lagun, ahaide edo ezagunen bat izan behar duela nonbait. Orduan bitxia da azkenik Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetatik azkarrago aritu ez izana, horregatik diot halako kasuetan protokolorik bat ote dagoen, izan ere, ez da normala mutiko hori auzotarren plataforma baten bidez, edo auzotar baten bidez, arropa erosteko diru-bilketa moduko bat egin diona, neguan gorriak ikus ez ditzan, edo jakiak emateko, edo zenbateko ekonomiko bat prestatzea Madrileran, Nigeriako kontsulatura, paperak iristen zaizkionean, hara joan dadin. Baina noski, protokoloaren barnean ez dakit pertsona bera izan behar den Artziniegako udaletxera etorri eta Oinarrizko Gizarte Zerbitzuekin egon behar dena, edo azkenik laguntza bat eskatzeko, izan DBE errenta edo elikagaien bankua izan behar den laguntza bat eskatzeko garaian, edo elikagaien bankura sartu behar duen, bertan aurkeztu behar ote den edo gizarte laguntzailea ote den deitu behar duena. Orduan noski gustatuko litzaidake protokolo hori, halakorik balego, martxan ipin dadila. Eta halakorik ez badago, bada bat egitea.

Alazne Lafragua Ureta: nik erantzungo dizut, ni naiz eta horrekin arduratzen naizena. Gai horri buruz bagenekien mutikoa hor dagoela, orduan harekin ipini ginen harremanetan, harekin hitz egin zen, eta gizarte langilearekin dago. Ni gizarte langilearekin geratu naiz, izapidetu behar dituzten gai guztiak izapidetzen hasi ziren. Gertatzen dena da hau oso luzea dela eta halako paper batzuk egunean ipintzeko hilabete asko behar izan daitezke. Igorri zen dagokion txostena, eta horretan ari dira. Harekin berriro elkartzeko asmoa dago, berez hitzordua hartu behar dugu, berriro ere langilearekin elkartu dadin, izan ere, behin erroldatuta dagoenean elikagaien bankuan sar daiteke.

Encina Castresana Astarloa: nik hitz egin dut, beno nik ez nekien ezer gai honen inguruan, izan ere, badakizue ni arduratzen naizela harrera egiteaz halako jendea etortzen denean parrokiara, ondoren esaten diegu Albarekin hitz egitera joan behar dutela, gizarte laguntzailearekin eta abar. Nik mutiko honen kasuaren berri ez nuen Ainhoarekin hitz egin nuen arte. Orduan joan den egunean berarekin hitz egiten aritu nintzen. Albaren bidez Nigeriako



enbaxadarekin hitz egin dugu, ez dugu aukerarik paperak zuzenean bidal diezazkiguten. GBE erakunde baten bidez egiten saiatzen ari gara, ea Gurutze Gorriaren bidez ahal dugun, edo ahal duen beste edozein GBE erakunderen bidez. Izan ere, oso zaila da, noski, 60 edo 70 euro ordaindu behar baditugu eta paperak iristen ez bazaizkigu.

Alazne Lafragua Ureta: beno, hor aldaketak ere badira. Kontua da halako gauzak delikatu samarrak direla eta ez dut uste une honetan hemen hitz egin daitekeenik.

Alkatea: gehienbat da herrian...

Alazne Lafragua Ureta: oso datu pertsonalak dira, uste dut ezin dela hemen hitz egin. Ondoren nahi baduzu...

Joseba Elejalde Ribacoba: nik gehienbat jarraitzeko protokolorik badagoen galdetzen dut. Nik ahal nuen guztia egin nuen mutiko hori hemen erroldatuta egon zedin, esan lehendabiziko gauza erroldatuta egon behar zuela izan baitzen. Eta beste pertsona batzuek egin duten moduan, bakoitza bere alea ipiniz doa eta zinegotzi modura egin behar duguna egiten goaz. Eta nik egin nuena izan zen... eta jarraibide gehiago eman nizkion, Udalak ematen duenaren barnean, baina tira. Nire ustez, azken batean oinarrizko gizarte-zerbitzuak dira egin behar dutenak, kasu honen aurrean, Alkateak jakinik, eta kontuan izanik, izan ere, niri Josebak deitu zidan eta elkarrizketa bat izan nuen berarekin, "bada, nik paperen kontuarekin nago eta abar", izan ere, nik uste nuen Italiako paperarekin aski zitzaidala, baina jakina ez dit balio, esan zidaten Espainian Italiako papera edo Italiako AIZ dokumentua asko sentitzen zutela baina hori haiantzat ez zela loteslea eta pasaporte behar zuela erregularizazioari ekin ahal izateko.

Encina Castresana Astarloa: guztiak du bere protokoloa.

Alazne Lafragua Ureta: eginda dago dagoeneko.

Joseba Elejalde Ribacoba: pasaporte berez alde batera utzita, Udaletik pertsona honen alde egin daiteken guztia, edo oso antzekoak diren egoeretan etor daitezkeen pertsonen alde, izan ere, egongo dira, pentsatzen dut. Kasu honetan uste dut ematen den lehen aldia dela, Udal honetan behintzat lehen aldia da nik dakidala...

Alazne Lafragua Ureta: agian ikusgarriagoa da.

Joseba Elejalde Ribacoba: hori ere egia da. Baina beno, azken batean irtenbide azkarrago bat emango duen protokolo bat aktibatzeko, ez jadanik paperen kontua, izan ere, badakigu izapideen kontua zer-nolakoa den, Nigeria dagoen lekuan dago, eta batek daki zer-nola funtzionatzen duten han administrazio-zerbitzuek. Edo enbaxadak edo daukatenak. Baina egia da tokiko mailan baditugula bitartekoak pertsona horiei laguntzeko. Izan Alba edo Jose Mari edo kasu honetan une honetan gizarte-zerbitzuetan dagoen pertsona, bada, esan dudan moduan, horretan dago dagoeneko, baina lehenbailehen izan dadila. Hau arazo bat da, eta nire kasuan bederen, niri kalean esan didate. Nik pertsona hori bi egunetan ikusi nuen han, baina nik uste nuen norbaiten zain zegoela. Norbaitek zein arazo zegoen esan zidan arte. Orduan hor...

Encina Castresana Astarloa: bai, baina nik uste dut egiaz haiek direla udaletxera etorri behar direnak, beste pertsona asko etortzen diren bezala. Udaletxera etorri, gizarte-zerbitzuekin harremanetan jarri...

Joseba Elejalde Ribacoba: baina azkenean zu herrialde berri batera iristen zara, hizkuntza ezagutu gabe, zure etxean bakarrik zaude, une horretan bakarrik zegoen, eta zeharo galduta zaude.. nik uler dezaket astebete pasa daitekeela edo bi eta are hilabete Udala pertsona horren egoera pertsonalaz ohartzen den arte, baina hortik aurrera, gizarte-zerbitzuak izan behar dira, nire ustez, hitzartutako protokoloaren bidez, lanari ekin behar diotenak eta behintzat oinarrizkoa dena eman. Beste gauza bat da nola lortu pertsona horrek bada...

Alkatea: edozein kasutan, gai hori jorratzen ari dira, oinarrizko gizarte-zerbitzuak dira horretan ari direnak, interesatzen ari den jendea ere badago eta ikus dezagun irtenbide azkar bat eman ahal zaion, bizkor, ahalik eta ondoen eta orduan guztiok pozik geratuko gara.

- Joseba Elejalde Ribacoba: ondoren bada beste zerbaite. Dagoeneko badira, ez dakit bi edo hiru urte, Baserrietarako igoera zena garbitu egin zen eta beno, eta berriro ura jasotzen den gunean guztia makil, sastraka eta orbelez beteta dago.

Alkatea: hodiak?



Joseba Elejalde Ribacoba: bai. Orduan, udal kontua denez, bada...

Alkatea: Castelo aldera?

Joseba Elejalde Ribacoba: buxatuta dago berririo. Hori Udalarena da, eta beste edozein errepidera joaten baldin bazara, hori jadanik Foruari dagokio eta beno... Komeniko litzateke, gehienbat gero errepidearen mantenua merkeago aterako zaigulako.

- Alkatea: EAJ?

Encina Castresana Astarloa: guk auzotarrek argiteria publikoarekin egon ziren matxura eta kalteen inguruan egindako kexuen berri eman genuen, batez ere Axpen, argiztapen eskasagatik, eta are egon den lapurretaren bat ere bai, eta auzotarren artean segurtasunik eza giroa sortu duena. Orduan zein neurri hartuko dituzun arazo hori ebazteko, argiteria publikoaren eta auzotarrek helarazten diguten segurtasunik eza hori murrizteko. Poliziaren presentzia gehiago edo zer egingo den...

Alkatea: gai horrekin, laburbiltze aldera, badakizue orain egin dela, luminariak aldatzeko bigarren fasea osatu da. Lehendik zetorren proiektu bat da, aldaketaren txosten bat eta memoria bat dago, egin behar zenari buruzkoa, orduan aldaketa gauzatu da. Noski, mundu guztiak nabaritu du, ez Axpen bakarrik, baizik eta argiztapena ipintzen ari diren leku guztietan aldaketa, eta argiztapenaren pertzepzioa asko aldatzen da noski, izan ere, lehengo luminarietan argiaren erdia galdu egiten zen, izan ere, galdu egiten zen, argi-kutsadura zegoen, eta leku guztietan halako luminaria guztiak kentzeko joera dago. Batzuen alde egiten ari dira leku guztietan, izan ere, hemen dauden berdinak, Amurrionara joaten bazarete, ia berdinak dira. Luminaria jakin batzuk ez direnak jada soilik energia aurreztekoak, baizik eta guk dugun pertzepzioa aldatu egiten dute apur bat, batez ere, eta orokortu egingo dut, Espainiako Estatuarena, Europarekiko argiari dagokionez dugun gehiegizko dimentsioaren gainean, ez hirietan bakarrik, herrietan, baizik eta errepideetan eta abar. Kasu honetan aldaketari ekin zaio, eta egia da aldatu egin direla eta hortik aurrera pare bat kexa idatzi iritsi zirela udaletxera. Beno, kezkatuta, argi gutxiago zegoela eta. Nik berehala erantzun nien, egiaz, luminariak aldatu egin zirela. Haiek aipatzen zuten apur bat dagoeneko ez zirela argizatzen, lehendabiziko kaxa horietan, dagoeneko gauzak ez zirela lehen bezala argizatzen, orduan segurtasunik ezaren sententzia zegoen. Nik esan nien, hasiera batean, argiztapenaren pertzepzioa aldatu egiten zela, hau da, argiztapena aldatu egiten zen, luminariak argiteria publiko modura argiztatu behar dutena espaloia da, galtzada eta ez dute, inolaz ere, argiztatu behar lorategi pribatu bat, ez etxebizitzetako fatxadak, ez ateak. Izan ere, bazegoen jendea zioena "etxean sartu eta sarraila ere ez dut ikusten ordea". Nik, besterik gabe, esaten nien hori ez zela Udalaren arazoa, nolabait esatearren, kalea da argiztatu behar duena, lorategia, parkea, espaloia, ez etxebizitzak. Ziurrenara pentsaera aldatu beharko da eta leku guztietan beste era bateko argiztapen batera baikeude ohituta hiru farolekin lorategia, etxebizitza, leihoa eta guztia argizatzen zuena. Gero egia da hor lapurreta bat izan zela, eta horren harira beste hiru idatzi iritsi ziren udaletxera lapurretaren kontua zela eta segurtasunik eza aipatuz. Nik ere berehala erantzun nien, egun batean edo bitan erantzun nien, eta esan nien Udalaren aldetik apur bat azterketa bat egingo zela, argiztapena kasu honetan Axpen nola geratu zen ikusi, eta hortik aurrera ikusiko genuen neurri gehigarriren bat hartu behar ote genuen ala ez. Egia da lapurretaren kontuarekin kexa horiek azpimarratu nahiko nituzkeela, eta udaletxera iritsi diren kexetara mugatuko naiz, kasuren batean lapurretan argiztapen aldaketarekin lotzen da, baina duela zenbait aste Sotoko zonan familia bakarreko etxebizitza batean lapurreta bat izan zen eta aurretik zegoen argiztapena zegoen. Hots, bestela, beno, bakoitzak nahi duen moduan ikus dezake. Segurtasunik eza sortzen duela eraikinak orain ilunpean geratzen direla? Bai, baina luminaria berriarekin ez da Udalaren ardura zure etxea argizatzea, ezta zure fatxada, edo zure leihoa ere. Ziurrenara orain jadanik zure ardura da. Lapurreta gertatzea ez dakit luminaria aldatu eta juxtu bi egunera, bada tira izan daiteke luminariengatik, edo ez, oso bat-batekoa baita, eta esaten dudan moduan beste lapurreta batzuk ere gertatu dira eta lehengo luminariak genituen zerua bera ere argizatzen zutenak. Orduan egin genuena izan zen, proiektuaren erredaktorearekin hitz egin nuen, bere garaian idatzi zuena, joan den legealdian proiektua idatzi zuena, memoria idatzi zuena, luminariak aldatzekoa, ipini behar zituztenak eta non ipini behar



zituzten jasotzen zuena. Aipatu nion ea hemendik pasa zitekeen, eta ez dakit aurreko astean izan ote zen, edo aurrekoan, gauzez jaitsi ginen ikustera, urbanizazioan buelta bat eman genuen, eta argiztapena nola geratzen zen ikusita, ikusi genuenez ez dakit 3 edo 4 puntutan beharrezkoa da apur bat gehiago ipintzea eta, apur bat gehiago ipintzekotan geratu ginen, argi gehiago emateaz, horiek apur bat ilunago geratzen baitziren. Zona horietan ikusten zen geratzen zela... hau da, badira zona ilunak, baina zona ilunak daude hor goran, hirigunean eta beste leku batzuetan Egon ezin daitekeena da angelu ilunak non segurtasunik ezaren sentsazioa egon daitekeen, eta segurtasunik eza aipatzen dugu bide publikoan, ez naiz ari segurtasunik eza aipatzen etxe barruan, argi gera dadila.

Encina Castresana Astarloa: bai, bai, argiztapen publikoa eta bide publikoa.

Alkatea: orduan kasu horretan bai hitz egin genuen berarekin. Ikusi genuenez, diodan moduan, hiruzpalau puntutan gehiago ipin ditzakegu. Ideia faroletan berdinetan ipintzea izango litzateke, puntu jakin horietan proiektore moduko zerbait faroletan atxikia, atxikitzeko aukera ematen duena ilunago dauden zona zehatzagoak argiztatzeko. Eta urbanizazioko gune batean beste farola bat ipiniko da. Hor bai, beste farola bat ipiniko da, izan ere, hor ez dago aukerarik beste farola batzuetatik fokua zona horretara bideratzeko apur bat, hor obra egin beharko da eta beste farola bat ipini. Azken batean bere garaian egin eta onartu zen ikerketan ez zen analisi bat egin, kasu honetan Axpez hitz egiten, urbanizazioaren gainean, hau da: hau da urbanizazioa, 40 farola daude, 50 behar dira argi mota horrekin. Ez ikerketan egin zena izan zen lehen izarrak ere argiztatzen zituen farola zegoen tokian, horien orde, farola mota hau ipintzea izan zen. Orain ikusi dugu punturen batean behar dela farola gehiago, aurreikusi ez zena edo dena delakoa, eta proba egiten saiatuko gara, fokuetako bat erosiko da proba egiteko, egiaz funtzionatu eta argiztatzen duen ikusteko, eta ondoren argiztatuta dagoen ikusteko. Atzo urbanizazio osoan zehar informazio-ohar bat banatu zen postontzietan. Bertan, zein aldaketa egin genuen azaltzen da besterik gabe, pentsaera edo pertzepzioan guztiok egin beharko dugun aldaketa, argiztapena lehen bezalakoa izango ez delako, eta datozen egunetan hiruzpalau puntu horiek hornituko direla auzoko gune jakin batzuetan argiztapena hobetzeko. Ziurrenera Sotoko zonan ere egin beharko da eta ziurrenera gune jakinen batean argi-puntu gehiago beharko dira, edo argiztapen gehiago, izan ere, egia da toki zehatzen batean bai geratzen dela nolabaiteko segurtasunik eza eman dezakeen iluntasuna.

• Encina Castresana Astarloa: hurrengo puntua Gabonetako programazioa. Zein berritasun egon da 2019-2020 Gabonetako programazio honetan?

Zuriñe Frutos Gutierrez-Barquin: Lekuren batean berritasunik egon behar al zuen? Edo besterik gabe galdetzen ari zatazkit, baten bat egon den.

Encina Castresana Astarloa: Gabonetako programazioan berritasunen bat egon ote den galdetzen ari naiz, besterik gabe. Gobernuko lehengo taldeari behin eta berriz galdetzen baitzitaion hori. Zein programazio egingo dugu aurten? Zein berritasun dago? Niri beste urte batzuen berdina iruditu zait edo oso antzekoa.

Zuriñe Frutos Gutierrez-Barquin: beno, programazioaz ni arduratu naiz, eta uste dut ez dudala asko kontatzeko, edo badakizula zer gertatu zaigun, teknikariaren baja dela eta denboraz kontra lasterka ibili garela. Arazo hori izan dugu aurrez aurre, bajaran zegoen, eta dagoeneko bagenuenari heldu diogu apur bat, eta itxi genezakeenari, izan ere, ekainean sartuta geundela eta aurrekontuak dagoeneko itxita zeuden, ez dugu hortik aurrera tarte handirik esateko "ah, bada aurten ez dakit zenbat xahutuko dut eta gehiago egingo dut edo gehiagoan sartuko naiz". Orduan dagoeneko aurrez genuenari heldu diogu apur bat. Ez dakit berritasunik dagoen.

Encina Castresana Astarloa: ez dakit, adibidez, San Tomaserako autobusa, ondoren bete ez zena. Baina, orduro autobus-linea bat eginez autobus bat ipintzeko premia ikusten zenuten? Galdera bat da.

Alkatea: beno, zenbait ideia pentsatzen aritu ginenean sortu zen ideietako bat izan zen, jendea agian, hau da, autobusak jendea gertu uzteko moduko ordutegi batzuekin programatzekoa, Abandoko zonan, eta handik zuzenean hartzeko aukeraz, eta jendea bertaratzea errazteko.



Miren Izaskun Perez Barragan: Bizkaibusen zerbitzu publiko bat dago.

Alkatea: bai, baina beno, azken batean zerbitzu bat eskaini eta esatea zen, ordu honetan ateratzen zara, bertan utziko zaitugu, autobusak, ia azokaren oinetan zuzenean, eta arratsaldeko 4tan edo 5etan itzuli eta bertan hartzen duzu berriro. Egin zitezkeen gauzen artetik bururatu zitzaigunetako bat izan zen bere garaian San Ferminerako autobusaren gaiarekin egin genuen moduan, eta ondoren jendeak esan zigun "begira, hobeto horrela egiten badugu". Bada datorren urtean beste era batean hobeto egiten ahaleginduko gara. Azken batean, dena bezala da, proba eta akatsaren jokoak, zerk funtzionatzen duen eta zerk ez ikustea.

Zuriñe Frutos Gutierrez-Barquin: apur bat nabartzearren, ideia zen hilean behin jarduera ezberdin bat ateratzea. Orozkokoa egin zen dagoeneko, eta orain Gabonetan egin zen frogara, gure ideia zen agian Athleticek partidatzen, edo Euskadikoan edo nesken partidatzen. Badakigu San Tomas azokak baduela eskaera eta autobusa San Tomaseko azokara eramanez nahi izan zen.

- Encina Castresana Astarloa: Gabonetako argiztapenari dagokionez. Zein aurrekontu zegoen argirako? Zein egunetik ipini ziren? Zenbatekoa izan da azkenik egiazko kostua?

Alkatea: 2019ko aurrekontuan Gabonetako argiztapenerako zegoen aurrekontua 4.000 euro ziren. Argiztapenaren azken kostua zertxobait handiagoa izan dela uste dut, 4.300 izan daiteke, ez dakit zehazki, hor nonbait. Ez dakit 400 edo 500 izan diren, baina uste dut tarte horretan, ez dakit zenbateko zehatza. Eta zein egunetik ipini ziren esaten ez dakit oraintxe bertan. Ez dizut egun jakin bat esango, ez dakit eta. Kaleko beharginei galdetzen badiet ziur eguna esango didatela. Ikusi nuena da berehala jaso zutela Gabonak amaitu eta hurrengo egunean.

Miren Izaskun Perez Barragan: bidali guztia idatziz.

Alkatea: bai, eta egunen inguruan galdetuko dut.

- Encina Castresana Astarloa: eskolako atea, sarrerakoa, nagusia, hautsita dago nonbait Gabonak baino zertxobait lehenagotik, konponduko da? Noiz konponduko da?

Alkatea: bada, hasiera batean bai. Ez dakit noiz konponduko den. Pentsatzen dut, ez baita administrazioaren gaia, aseguruarekin izapideak egiten ari direla, eta ez dakit zehazki nola egongo den kontua aseguruarekin, izan ere, egia da azken batean pentsatzen dugula halako gauzak, pibote bat edo beste edozer kolpatzen dutenean bezala, apur bat azkarrago doazela eta gero zer eta dezente atzeratzen dira. Eta aukera baliatzen dut hirigunera sartzeko txartelen makinaren kontuarekin, hura ere kolpatu egin baitzuen, eta aspaldi, kamioi batek, eta herritarren lankidetzari esker kamioia norena zen jakin izan dugu, eta aurkitu dugun arazoa da halako makinak katalogoz kanpo daudela eta dagoeneko ez dute halakorik, beraz beste bat bilatzen ibili behar izan gara, dezente atzeratu da eta atzeratuko da, izan ere, esan digutenaren arabera hainbat astez atzeratuko dira makina berriari onespina eman, daukagunarekin bateragarria izan dela ikusi eta abar, eta ondoren ez dezagun arazorik izan, eta oraindik instalatzeko denbora beharko dutela, beraz zapokeria handi samarra, pibote batean gertatuz gero badakigu denbora behar izaten dela baina azkenean ekartzen dutela, berriro ipintzen dute eta kito. Kasu honetan arazoa handiagoa da. Eta atearen kontuarekin antzekoa izango da kontua baina ez dakit, baina galdetuko dut eta esango dizuet.

- Encina Castresana Astarloa: beno, galdera hau egin nuen, baina tira, berriro egingo dut. Parrokiako Kantoiko baranda. Zein segurtasun-elementu ipiniko dira hor? Ainguratzeko zuloak daude eta hor aitona batek hanka sartu eta ia erori egin da. Zer egingo da horrekin? Eta horrela utziko duzuen, edo noiz konponduko den, edo noiz...

Alkatea: ez, hasiera batean ezer ez, baina begiratuko dugu pixka bat. Ikusiko dugu. Nik argi dut gurgildun aulki batean dagoen eta minusbaliotasuna duen pertsonaren batentzat oztopo ez den bitartean, kontua baldin bada zulo bat geratu dela, eta pentsatzen dut hori...

Encina Castresana Astarloa: ez, nik uste dut segurtasun kontua dela. Haurren liburutegira igarobide bat dago eta kalera irten daitezke inolako... ez dakit.

Alkatea: argi dago, eta hor ere falta da, Mirafloreseko Kantoian ere gauza bera gertatzen da. Egia da. Beste kontu bat da ea ipin dezakegun... ez dakit. Gurutzatzen duten haurren



kontuarekin, konplikatua da, izan ere, alboetan galga dezakezu baina erdiguneak libre jarraituko du.

Miren Izaskun Perez Barragan: zuloen kontua da premiazkoena.

Alkatea: zuloena bai, aipatuko diot, eta esango diot. Are gehiago, gogora datorkit, oraintxe bertan oroitzen naiz, ez dakit bakarra, baina hirigunean izan den azken auto harrapaketa haur bati izan zen eta beheran izan zen, Goyoren parean...

Encina Castresana Astarloa: beheran, kantoi horretan bertan, beheran.

Alkatea: eta hor hesiak zeuden. Hau da, haurra hesietatik irten zela eta azkenean sartu egin zela, autoaren azpian amaitu zuen. Azken batean egia da hori, baina inori ez digu ezer ekiditen. Zuloen kontua aipatuko diet beharginei eta begira dezatela.

- Encina Castresana Astarloa: udal eraikinen EIT ikuskapenen gaia. Badute? Pasa al dute udal eraikinen EIT ikuskapena? Eta, era berean, izan ditugun alerta klimatologikoen kontuarekin, eraikin batzuetan hesiak ipini baitira...

Alkatea: EIT ikuskapenak?

Encina Castresana Astarloa: udal eraikinetan.

Alkatea: Udalarenak direnetan?

Encina Castresana Astarloa: bai.

Alkatea: bada galdetu egin beharko nuke eta esango dizut.

Encina Castresana Astarloa: eta ondoren egon diren alerta klimatologikoen gaiarekin, Moraren eraikinen hesi batzuk ipini ziren eta Vallekoan eta abar, nahikoa segurtasun ote den hesi batzuk ipintzea arazoren bat egotea ekiditeko.

Alkatea: bada, behin-behineko gauza bat izan zen, izan ere, begira, gainera hor dago Tito, abisua eman zidan, ni etxean nengoen eta deitu egin ninduen, kristalak erortzen ari zirela esan baitzidan, eta hain juxtu jaitsi nintzen eta ni iritsi bezain pronto leihotako bat osorik erori zen behera, eta orduan izan zen hartu eta ahal bezain pronto zinta genuen eskura, hesiak hemen zeuden pilotalekuan eta berehala espaloiko perimetro hori itxi genuen, hesiekin itxi genuen, eta bederen espazio horretan erortzea ekiditeko. Arratsaldez, jadanik berandu, gertatu zen hori, arratsaldeko zazpietan gutxi gorabehera, uste dut haizetearen egunean aritu zela erortzen. Hurrengo egunean eraikin horretako jabeari deitu zitzaion, ez zegoen inor bertan bizitzen, obratan izan dute baina momentuz hor dute etenik, etortzeko esan zitzaion, eta etorri ziren ez dakit arratsalde horretan bertan, edo egun horretan bertan uste dut, eta ondoren bera hona udaletxera etorri zen esatera beno, leihoak zeudela eta leihoak iltzeekin sostengatu zituztela. Arazoa zen atzeko partean, Morara ematen duen aldean, atzerantz, leihorik gabe zeudela eta hor korrontea zegoen eta aurrekoak ireki zituen eta kristalak kolpatzen ari zen, eta kristaletako bat gainera balkoian geratu zen. Eta etorri ziren eta leihoak iltzeekin iltzatu zituztela berriro gerta ez zedin, eta esan nien berriro ez zedila errepikatu.

Encina Castresana Astarloa: eta eraikin horiek pasa dute edo ez dakizue?

Alkatea: ez dakit, badakit eraikin horrek eskatuta duela, bere garaian zaharberritze lanen bat egiten aritu ziren, eten egin zitzaion eta orain aurkeztzen ari dira, badakit proiekturen bat edo zerbait aurkeztu beharrean direla zaharberritzeko lanerako txukun onespina eman diezaieten eta horretan ari dira, izan ere, dagoeneko obra egiteko idazten ari direla esan digute. Orduan, horri dagokionez...

- Encina Castresana Astarloa: eta beste galdera bat, museoaren bideragarritasun-plana zein puntutan dago? Duela urtebete bezala gaude? Nola finantzatuko da museoa? Berdin al gaude?

Alkatea: Arkaitz da...

Arkaitz San Jose Martinez: bideragarritasun-plana egina dago, entregatuta dago, hau da, gu Udal modura bezeroak izan ez arren bideragarritasun-planaz hitz egiten ari naiz, aurkeztu zen, kopia bat eman digute, baina edozein kasutan zenbait gomendio eta abar ziren. Orain, uste dut beste saio batean esan nuela baina tira, kontua da hala Udalak nola Arabako Foru Aldundiak uste dutela patronatua dela etorkizunean museoa kudeatzeko formula onena, hau da, fundazio bat eta patronatua fundazio horren gobernu-organo modura. Azter dezagun Aldundiak duen



fundazioetako bat igorri zitzaigun, zehazki, "Añanako Gatz Harana", hemen izan dezakegunaren antzeko proposamena dela uste baitzuten. Aldi berean, dagoeneko badago fundazio bat eratua Artziniegako Museoa izenarekin uste dut, elkarteak berak eratua. Gauden fasean dagoenaren eta ezagutzen diren beste esperientzia batzuen gure berezko erregelamendua zer-nola egin ezartzen ari gara. Egia da garaiotarako dagoeneko ebatzita egongo zela pentsatzen genuela. Egia da, era berean, horri dagokionez Aldundiarekin eta kultura Diputatuarekin harremanetan jarri garela galdetuz, zerbait aurreratua ote zegoen ikusteko ahaleginean. Bere Diputatuaren bidez Aldundiak beregain hartu zuen lana zen proposamen honetara eta fundazio honetara ugazaba modura erakunde gehiago sar zitezela saiatzea, zehazki, Eusko Jaurlaritzan. Zerbait aurreratuta ote zegoen jakiteko deitu genuen, esan ziguten erantzungo zigutela proposamen bat zeukaten unean eta ez dira Udalarekin harremanetan jarri ezer jakinarazteko. Aurtengo urtearen hasierarako prest izatea nahi zutela esan ziguten arren. Adeitasun instituzionalagatik, ohartaraziko digutela esan baitziguten, ohartarazteko zain gaude. Badakigu, kontu publikoa delako eta Batzar Nagusietan eztabaidatu delako, Batzar Nagusietako aurrekontuan, beno Aldundikoan, 2020. urterako 50.000 euroko partida bat dagoela museorako, baina noski ez dakigu 50.000 euro horiek kudeatzeko proposamena zein den. Dagokigun, ez dagokigun, Udalaren bidez egiteko asmoa dagoen ala ez, hau da, ez dugu inolako jakinarazpenik ildo horretatik. Beraz, guk gobernu talde modura ezin dugu zain egon haiek zerbait esateko gure berezko proposamena onartzeko, beraz, gutxienez orain arte kudeatu izan den bezala kudea zitekeela uste dugu, egokiena ez izan arren, horrela aintzatetsi dugu aurrekontuan eta izaten den edozein aldaketa islatu egingo dugu partidak areagotuz, murriztuz, aldatuz edo dena delakoa eginez. Balioespen baten inguruan galdetzen badidazu, duela urtebete bezala gauden edo beste egoera batean ote gaude, egia da ez dugula dokumenturik sinatuta irtenbide bat dagoela dioenik...

Miren Izaskun Perez Barragan: orduan berdin gaude.

Arkaitz San Jose Martinez: ... baina uste dugu egoera ezberdina dela hau konpondu beharreko kontu bat dela dioten jarrerak adierazi direlako. Legez ez dugu ezer, hori egia da.

Miren Izaskun Perez Barragan: berdin gaude. Iaz bezalaxe gaude. Gertatzen dena zera da, galdera bat, zuk fundazioa eta patronatua aipatzen dituzu.

Arkaitz San Jose Martinez: bai, noski.

Miren Izaskun Perez Barragan: ez da gauza bera. Fundazioa Artea Elkarteak sortu duen fundazioa da, fundazio izateko eraldatu nahi denez, gustatuko litzaidake jakitea zein eginkizun, edo Udalak fundazio horren barnean eginkizunik izango duen, eta ondoren beste gauza bat patronatua da, Añana Gatz Haranaren eredu dena, eta hor dago Aldundia. Ez dago fundazio bat eta ondoren patronatua. Fundazioa Artea egiten ari dena da, parte hartuko duen eta Udala fundazio horrekin juridikoki eta ekonomikoki zer-nola lotzen den jakin nahi dut, eta ondoren, patronatuaren aldeari pentsatzen dut Aldundiaren kontua izango dela. Nire galdera da Aldunditik deitu ez badizute Udalak Aldundiari dei diezaiokeen.

Arkaitz San Jose Martinez: bi, eta deitu diegu.

Miren Izaskun Perez Barragan beste gauza bat da haiek ez erantzunik ematea.

Arkaitz San Jose Martinez: deitu diegu eta esan digute proposamenen bat daukatenean jakinaraziko digutela, eta horregatik gaude zain.

Miren Izaskun Perez Barragan: hau diot, izan ere, iaz sekulako presa zegoen eta urtearen hasieran ez zegoen irtenbiderik, tira, nik ere uste dut 2020. urteari begira museoari egonkortasuna emateko, bada erantzun bat eman beharko litzatekeela lehenbailehen.

Arkaitz San Jose Martinez: erabat ados nago. Edozein kasutan, eta zalantza juridikoei dagokionez, fundazioa gauza bat da, eta patronatua...

Miren Izaskun Perez Barragan: beste bat. Zuk gauza beraz hitz egin duzu ordea.

Arkaitz San Jose Martinez: fundazioaren gobernu-organoa da. Hau da, bi gauza dira baina berdinean.

Miren Izaskun Perez Barragan: Patronatuaren barnean Aldundia sartuko al da?

Arkaitz San Jose Martinez: bai

Miren Izaskun Perez Barragan: fundazio horretan, argitaratua dagoen horretan.

Arkaitz San Jose Martinez: bai. ea, ea hori erakusten duen paperik gabe esaten dizut baietz.



Alkatea: baina argitaratutakoaz ari da.
Miren Izaskun Perez Barragan: argitaratutakoaz. Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean bada bat argitaratua.
Alkatea: uste dut Arkaitzek ez dizula ulertu eta erantzuna beste bat izan liteke.
Miren Izaskun Perez Barragan: zuk baietz esan duzu.
Arkaitz San Jose Martinez: bai, nik diodana diot, hau da, fundazio horrek patronatu bat du. Izaskun, fundazio batek ez dezake funtzionatu patronatu gabe.
Miren Izaskun Perez Barragan: ez didazu ulertzen ordea. Ezetz.
Arkaitz San Jose Martinez: oso ongi ari natzaizu ulertzen, baina utzi bukatzen. Fundazio horren estatutuak konfiguratuta dauden moduan patronatuko kideak dagoeneko banatuta daude. Beraz, konfiguratuta dagoen moduan ezin da dagoeneko izendatuta eta hautatutako pertsonen aparte beste inor sartu. Estatutuak aldatu behar dira, edo beste bat sortu beharko da, ikusiko da...
Miren Izaskun Perez Barragan: orain argudioa aldatzen ari zara ordea.
Arkaitz San Jose Martinez: Ni?
Miren Izaskun Perez Barragan: ni Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean argitaratuta dagoen fundazio bat dago eta bertan fundazio jasotzen da, ez dut gogoan izena, nola izena duen, galdetzen dudana da, honetan Arabako Foru Aldundia barneratuta dago eta sinatuta? Legez barneratuta dago. Badago paperik sinatuta?
Arkaitz San Jose Martinez: ez, ez.
Miren Izaskun Perez Barragan: baina, baietz esan duzu ordea.
Alkatea: baietz esan dizut ulertzen ai nintzelako Aldundiaren fundazio proposamenaz hitz egiten ari zinelako. Horregatik esan diot "gauza ezberdinez hitz egiten ari zaretela".
Arkaitz San Jose Martinez: ea, estatutu horiek argitaratuta dauden moduan daude argitaratuta, eta ez dira aldatu. Estatutu horietan...
Miren Izaskun Perez Barragan: eta nire galdera da, eta Arabako Foru Aldundiak sinatu du, atxikita dago, edo deitu nahi duzun eran, argitaratuta dagoen horrekin?
Arkaitz San Jose Martinez: gaur egun ez.
Miren Izaskun Perez Barragan: orduan ez dago.
Alkatea: baina Udala ere ez.
Miren Izaskun Perez Barragan: jakina eta, nire galdera zen, eta udala ere bai?
Alkatea: baina Udala ere ez.
Miren Izaskun Perez Barragan: horregatik, horregatik galdetu nahi dut, eta Udala orain ezetz da, baina zuk baietz esan didazu.
Alkatea: noski, Gatz Haranaren inguruan Aldundiak egindako proposamenagatik ari zinela ulertzen ari nintzelako. Ados, argituta dago, nahasmen bat izan da.
Arkaitz San Jose Martinez: ados, baina proposamena hori izatea ala beste bat izatea...
Miren Izaskun Perez Barragan: ez, bata ala bestea da, ezin dira bi izan.
Arkaitz San Jose Martinez: tira, estatutuak alda daitezke.
Miren Izaskun Perez Barragan: bai, bai, bata ala bestea, ezin dira biak izan. Gobernuko taldeak Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean argitaratutakoa babestuko du?
Arkaitz San Jose Martinez: Udalak gaur egun fundazio horrekin zerikusirik ez duenez...
Miren Izaskun Perez Barragan: baina barneratu egiten du.
Alkatea: bai, baina fundazio horretan egotea edo beste edozein organotan, ulertu nahi dut eta Idazkaritzak zuzenduko nau, ziurrenera osokoa hartzeko erabakia izango da.
Miren Izaskun Perez Barragan: noski, nik jakin nahi dudana da ea gobernuko taldea prest dagoen ixteko...
Alkatea: gobernuko taldea orain itxaroten ari da ea Aldunditik, kultura Diputatuak bilkura batera dei gaitzan eta esan "aizu, jarrai dezagun hitz egiten, has gaitezen hitz egiten eta ekin diezaiogun honi"...
Miren Izaskun Perez Barragan: nik iradokizun modura berriro ekiteko esango nuke.
Alkatea: azken bilkuratik ziurrenera hiru hilabete igaro baitira. Ez dugu egiaz ezer jakin esaten duenik "aizu, bai". Jakin dugu Eusko Legebiltzarrean finantzaketaren inguruko gairen bat eztabaidatu dela eta, kontsultatu egin digutenez, arreta handiz ibili gara Aldundiak zein urrats



emango dugun jakin gabe. Oso leial jokatu dugu gai horrekin hala nahi izan genuelako Aldundiarekiko eta mahai horretan geunden kideekiko begirunez. Zerbait noiz esango diguten zain gaude.

Ascension Hormazabal Meabe: kudeaketa-plana ez dago udaletxean. Nik ez dut ikusi.

Arkaitz San Jose Martinez: ez da kudeaketa-plan bat. Ez dakit nola izendatzen den. Bideragarritasun-plana.

Alkatea: bideragarritasun-planean bertan eszenario ezberdinak planteatzen dira, eta eszenario horietan dirua ere ezberdina da. Zain gaude esateko...

Joseba Elejalde Ribacoba: nire ustez, arazoa oinarrian, alde batera utzita noski, egongo garen, egongo ez garen, estatutuak zer-nola doazen, Arkaitz gauza bat esan duzu oraintxe, 50.000 euroko partida bat dago Batzar Nagusietakoak 2020. urterako. Baina, 2020. urterako aurrekontuetan eztabaidatuta edo onartuta dago?

Miren Izaskun Perez Barragan: onartuta dago.

Arkaitz San Jose Martinez: aurrekontuetan onartuta dago.

Joseba Elejalde Ribacoba: noski, izan ere, hor bederen badugu badakigu fundazioa eratzen den arte, bada bitartean irekieraren kostua gutxi gorabehera konponduta dugula. Izan ere, noski, Eusko Jaurlaritzan Alderdi Popularrak museoaren gaiari buruz aurkeztutako zuzenketa bakarra, Alderdi Popularrak aurkeztu zuen eta, jakina, ez zen onartu. Eta niri bai iruditzen zait... beno, zuen taldeak, zuk esan zenidan Joseba, Aldundiarekin harremanetan zeundetela eta adeitasun instituzionalagatik ez duzuela nahi izan babestu...

Alkatea: horretaz ari nintzen.

Joseba Elejalde Ribacoba: noski, baina hemen jarraitzen dugu gurpil zoroan. Bi urte daramatzagu hau antolatu nahian. Patronatuaren edo fundazioaren irudia mahai gainean ipini zen duela bi urte jadanik. Arabako Foru Aldundiak ikerketa bat egin zuen, azkenean atzeratu egin dena, izan ere ekainerako pentsatuta zegoena urrian aurkeztu zuen, azaroan. Baina niri iruditzen zait, ni bederen lasaiago geratzen naiz 50.000 euroko partida hori dagoeneko onartuta baldin badago aurrekontu honetan, baina tira.

Alkatea: Diputatuak bai, oker ez banago, bilkuretako batean hitzez esan zidan, hark esan zuen Aldundiak beregain hartuko zuela, noski, planteatzen geniolako, "aizu, 2020. urtean sartzera goaz, zer gertatuko da hau atzeratzen baldin bada?" Eta hark ahoz esan zigun Aldundiak beregain hartuko zuela horrek suposatzen zuena fundazioa, organoa, edo dena delakoa, martxan ipintzen zen arte. Aldundiak beregain hartuko zuela. Hau da, guk ikusi dugu, eta Arkaitz horretaz ari zen, izan ditugun bilkuretan ikusi dugu Diputatuaren aldetik hasiera batean aurretiko jarrera ona ikusi dugu museoaren gaiari irtenbide bat emateko. Are gehiago, bere esaldietako bat uste dut izan zela, ez dakit datorren urtean zen "ez dut nahi hurrengo urtean Artziniegako museoaz hitz egiten entzun". Hau da, ez du nahi duela urtebete pasa zena berriro gertatzea. Eta hori hasiera batean oso argi zuen. Hori egiaz horrela baldin bada, arindu behar dutena arintzeko zain gaude etorri behar duen planteamendurekin etor dadin, honi guztioni forma ematen hasteko. Baina hasiera batean diodana, hor gaude zain, eta batez ere esateko "aizu, esaguzu orain, guk ere presa dugu eta". Eta pentsatzen dut zuk esan duzunagatik hau lehenbailehen konpontzeko presa duzula zuk ere.

Miren Izaskun Perez Barragan: beno, bada orduan, erreguz hertsatuki eskatzea Udalari gehiago ekin diezaiola horretan.

Alkatea: bai, bai, guri ere interesatzen zaigu noski, baina begira adibide bat eman diezazuket, eta ez du zerikusirik baina, dena delakoagatik goreneko beste administrazio batzuek funtzionatzeko duten moduarekin lotutako denborengatik edo epeengatik den. Beste gai batekin Diputatu zehatz bati ekainetik bi gutun igorri zaizkio harekin bilkura bat eskatuz eta erantzun ere ez du egin. Bada beste bat igorri beharko diot, edo zuzenean bere zuzendariari edo dena delakoari deitu beharko diot gurekin bilkura bat izan dezaketean galdetuz herrian ere eragiten digun kontu batekin. Esan nahi dudana da, ez dakidan Aldundiaren erritmoak beste batzuk diren, beste era batera funtzionatzen ote duten, eta Eusko Jaurlaritzara joanez gero gehiago atzeratzen ote den, edozein arrazoi dela medio, Udalean sinpleak diruditen gauzak atzeratzen diren bezala, ondoren horren sinpleak ez direlako, bada agian Aldundian... Orduan ez dakit epe kontua den edo beste gauza batzuetan egotea nahiago duten edo zer, baina tira,



egia da urtearen amaierako esaten dizutenean, uste dut aurreikusten hasi beharrean zaudela ez dizutela urtearen amaieran erantzungo. Baina tira, edozein kasutan, ekin egingo dugu.

Miren Izaskun Perez Barragan: guk eskatzen duguna da konpondu dadila ez gaitezen iazko egoeran egon museoaren itxierarekin.

Arkaitz San Jose Martinez: erabat ados.

- Encina Castresana Astarloa: beste kontu bat. EALZ. Bada hori, dakiguna, ez dakigula ezer...

Alkatea: bada begira, hain zuzen Diputatuari eskatu dizkiot bi bilkura Eguneko Arretako Zentroarekin zer gertatzen den azal diezagun, oraintxe bertan erretiratuekin espazioa partekatzen ari baita, eta egia esatera EALZ zentroarekin zer gertatu zen begiratu nuen nik, izan ere, sartzean, begiratzen aritu garen gaien artean zintzilik zeudenetako bat hori zen, eta zeuden azken datuekin, uste dut martxokoak edo hor ingurukoak, Udalak eman zituen azken urratsak dagoeneko eginda zegoen, Aldundira dagokion dokumentazioa igorria zuen, gizarte politikara, eta zera bidali nion, ez dakit gutun bat izan ez ote zen uztailean, uste dut beste bat igorri niola azaroan, bilkura bat izan ote dezakegun ikusteko edo azal diezagun behintzat zein izapidetan zegoen kontua, zein fasetan zegoen edo nola zegoen gaia, baina ez dugu inolako erantzunik izan. Saileko pertsonaren batekin hitz egin nuen, baina horretaz ez direla haiek arduratzen esan zidan, goitik arduratzen zirela. Ea berean, dakidanez gizarte politika sailean ere azken hilabeteotan zoro samar ibili dira falta zelako ez dakit finantzaketa eta gauzak eta kontu asko, eta ez dakit azken batean lehentasun kontua den eta Artziniegari egokitu zaion bere garaian horretaz arduratzea egokitzen zaienean. Baina beno, interesatzen zaigun gai bat da, zein fasetan dagoen jakin nahi dugu eta. Batez ere esan diezagutela, bada begira, behin betiko fase batean dago eta orain honakoa egin behar da, edo oraindik berde dago eta ikusiko da. Egia da hasieran Aldundiari EALZ zentroaren gaia planteatu zitzaionean egin zen eskaeratik, gaia asko aldatu dela. Hasiera batean 20 pertsonentzako edukiera izango zuen eguneko arretarako zentro berri bat eskatu zen. Ondoren, legealdiaren amaieran, guk ere uneren batean aurreko Alkateari gai honen inguruan galdetu genionean, Iñigori, 10 aipatzen zuen. Eta gaur egia esatera, eguneko arretako zentrorra 5 edo 6 pertsona ari dira joaten. Hau da, duela ez asko arte egon den eskaera, non pertsonaren bat Aiarara joan behar zuen, oraintxe bertan dauden 10 plazetatik hara 5 edo 6 pertsona joaten ari dira. Hau da, gainera garai hauekin eguneko zentroaren eskaera edo egoera bera asko aldatzen ari da.

- Encina Castresana Astarloa: ondoren, osokoen eta batzordeen eta gauza horien guztien aldizkakotasunari dagokionez, uste dugu apur bat sistematikoki urratzen dela antolaketa batzordea izan zena. Orduategiak aldatu genituen, egunak aldatu genituen, dokumentazioa falta zaigu zenbaitetan, ez duzu dokumentazioa aldatu egun batetik bestera. Beno, deialdi horietan ere antolaketa pixka bat eskatuko genizueke, ez dezazula esan 9etan eta gero 9:30etan izan dadila, eta halako gauzak.

- Encina Castresana Astarloa: eta azkenik, era berean, esan digute hilerrian altzifre bat lehor dagoela. Orduan, bada ea horri dagokionez zer egingo den.

Alkatea: lehendabizikoari buruz, dokumentazioa gaineratzearen kontua, uste dut guk finkatu ez dugun ohiko joera bat dela, dokumentazioa gero gaineratzearena, osokoaren aurretik. Izan ere, zenbaitetan, badakizue osokoaren deialdia bi egun lehenago izaten dela, orduan agian bada oraindik egiteke dagoen dokumentazioa, eta are aurreko osoko bateko akta amaitu baldin bada eta juxtu sartzen baldin bada sartu eta igortzeko ahalegina egiten da, eta ondoren hil honetako osokoa urtarrileko lehen ostegunean izan beharko litzateke, hilaren 3an, baina tira, azkenean beste batzuetan gertatzen zen moduan gertatu da irailean festekin batera egokitzen zenean, eta azkenean bada dira.

Miren Izaskun Perez Barragan: gu ordutegiaz ari gara. Izan ere, azken batean apur bat... ordutegiak, ea ordutegiren bat finka daitekeen. Ea, ez da zertan izan behar mugitu ezin den ordutegi bat...

Unai Gotxi Kastrexana: finkatuta dago.



Miren Izaskun Perez Barragan: baina ordutegi batzuetan ibil gaitzen, edo 8etan, edo 9etan, edo azken orduan, baina apur bat iruditzen zaigu, batzuetan 9:00etan, beste batzuetan 9:30etan, 10:00etan, 18:00etan, 19:00etan...

Arkaitz San Jose Martinez: Ez al dago onartuta?

Unai Gotxi Kastrexana: osokoen ordutegia onartuta dago.

Encina Castresana Astarloa: bada, horregatik.

Unai Gotxi Kastrexana: 10:00etan eta 18:00etan

Arkaitz San Jose Martinez: edo 19:00etan udan.

Unai Gotxi Kastrexana: ezohikoak ez daude...

Ascension Hormazabal Meabe: baten bat beste orduren batean egin zen, gehiago komeni zitzaizuela esan zenuela baina ezohikoa zen.

Miren Izaskun Perez Barragan: apur bat ipintzearren...

Alkatea: ordutegiak finkatuta daude. Beste kontu bat da zeraren barruan, beste legealdi batzuetan ere egin da hori, azken batean uneren batean edozein arrazoi dela medio, azken batean horri buruzko solasaldi bat izan da, aizu, ordu hau hobeto da arrazoi hau dela medio, ez badago inolako arazorik kito. Baina azken batean kontu hori ez da ...

Miren Izaskun Perez Barragan: erregu bat da gehiago, finkoagoa izango den ordutegi bat finkatzen ahalegintzea.

Alkatea: bai, ez dago arazorik. Eta altzifrearen gaiari dagokionez, asmoa dago, badakizue, ahal denean moztu eta bertatik kentzeko. Asmoa ere badugu eta beno, ikastetxearekin hitz egin beharrean gaude, bada ikastetxearen alboan dauden makalak begiratzeko, gehienbat ikusten ari garelako, batez ere haizearekin, gero eta maizago egoten dira arazoak haize bortitza denean, orduan begiratuko dugu, lehendabizi ikastetxean aipatu, helarazi, eta ondoren bada bai. Atzo basozainarekin ere izan ginen, nork egin zezakeen iradoki zigun, eta ondoren haiek emango zizkigutela zuhaitzak dituzten haztegietatik, ez dakit Arkauten edo non dituzten, zona hori halako zuhaitzekin berriro landatzeko.

Miren Izaskun Perez Barragan: Kendu egin nahi duzue? Makalak kendu eta berriro landatu?

Alkatea: beste zuhaitz mota batzuekin berriro landatu. Albo-kalteak izan daitezke uda iristen denean jolaserako eremu guztian itzalik ez izatea, baina tira... ziurrenera egin beharrekoa izango da. Zuhaitzak kendu egin beharko dira, izan ere, azkenaldian zer gertatzen ari den ikusten ari gara, orduan edozein gauza prebenitu behar dugu.

Joseba Elejalde Ribacoba: momentu bat, besterik gabe, osokoak jakin dezan. Ez dakit Batzar Nagusietatik zuen taldeetara igorriko ote zuten. Honek zerikusia du apur bat, badakizue...

Miren Izaskun Perez Barragan: Errepidea?

Joseba Elejalde Ribacoba: errepidea igotzen dena... bai hori da, museoa eta Arteako parkea elkartzen dituen, 45 metro inguruko tarte bat dago espaloirik gabe dagoena, orduan Elkarrekin Podemos Arabak moztu bat sartu zuen, atzo talde guztien artean zuzenketa transakzional bat egon zen, talde guztiek babestua, eta zera esaten da, eta esaten dizut gehienbat Joseba atzo apur bat hitz egiten aritu ginelako gaiaren inguruan...

“Arabako Batzar Nagusiek hertsatuki eskatzen die Arabako Foru Aldundiari behin Artziniegako Udalaren dagokion eskaera jaso ostean Udalarekin irtenbide adostu bat bila dezan, A-624 errepideko hiri-tartea Artziniegatik igarotzen den gunean Arteako Santutegira arte eraiki, egokitu eta urbanizatzeko lankidetzeta-hitzarmenean etorkizunean isla daitekeena”.

Hau da, esan nahi dizut badakigula hori ezerezean gera daitekeela, eta esaten dizudana da gehienbat, eta nik hemen azal dezazun nahi dut apur bat, izan ere, uste dut garrantzitsua dela jendeak jakitea, adarreko Diputatuarekin zein solasaldi izan zenuen eta horrek zer suposa dezakeen, hemen baitago Udala eman behar ditugun urratsetarako.

Alkatea: ez, gehienbat izan zen, hasiera batean bai, eskertu behar da, beno, Elkarrekin Podemos, EzkerAnitza eta uste dut Equo batzar taldeak, uste dut Batzar Nagusietan hori dela, bada kezka berri eman zuela Batzar Nagusietan, beno, galdekizun bat errepidetako Diputatuari esan dezagun, Museoaren eta Santutegirako igoera bitarteko tartean falta den espaloiarekin kontuarekin. Gai hori Batzar Nagusietan jorratu zen eta Diputatuak esan zuena da



ez zegoela inolako arazorik, baina Aldundiak, bere politika edo filosofiaren barruan, ez duela jarduten halako tarte jakin batean, hor espaloia bat ipintzeko, baizik eta errepide guztian osorik jarduten duela. Orduan hori baliagarri izan zaigu Artziniegako Udalarirene bai, hori eta ondoren Udala izan behar zela Aldundiari errepide horretan guztian esku-hartzea egin zezan eskatu behar ziona. Hori baliagarri izan zaigu Udalerako ere aukera baliatzeko esateko, ados, ongi, gu hasiera batean oso ados egon gaitezke hitzarmen bat ezartzearekin, akordio bat, eta errepide hori guztiori egin. Hau da, honekin egin zen gauza bera, hemengo honekin ere egitea, izan ere, egia baita zenbait tartetan esate baterako eta adibidez gasolindegitik gertuen dagoen zonan ikus daitekeela espaloia lurreko zonalderantz dagoela emana, landetarantz, orduan egoera kaskarrean daude. Egia da, era berean, landa horretako zona hori guztiori, Geltoki plazako beheko zonan, saneamenduaren gaiak ez du, guztia putzu septikoetan amaitzen da, eta saneamendu guztia bideratu beharko litzateke berriro eta horrela apur bat gai guztia konponduko litzateke. Hemen dagoen espaloia ere ikusten dugu nola dagoen, Museorako igoerakoa, hori ere oso hondatuta baitago. Errepidea gorantz egiten joan da, espaloia baxu geratu da. Orduan beno, planteamendua, atzo onartu zena, badakit azkenean zuzenketak sartu zirela, badakit behintzat EH-Bildutik zuzenketa bat sartu zela horrekin lotuta, kontsultatu egin zidatelako, errepide guztia zabaldu zedin. Diputatuak goizean juxtu nirekin hitz egin zuen esateko haiek ere PSOEtik zuzenketa bat sartu zutela apur bat ildo horretatik...

Miren Izaskun Perez Barragan: EAJ taldearekin.

Alkatea: ez, ez gainerakoena ez dakit. Eta ondoren azkenean bidali zidatena, guztion artean zuzenketa bat adostu zutela non alderdi guztiek hori egitea sinatzen baitzuten. Nik esan nien esku-hartzeak hasiera batean, hemen onartu zenak, errepide guztia hartzen zuela, hau da, biribilgunetik Santutegira arte. Ez zitezten ondoren etorri eta esan "ez, udaletxeko biribilgune honetatik Santutegira arte". Hots, guztia har zezala. Jakina, ekonomikoki obra garrantzitsua da eta aurreikuspena apur bat da, atzo EAJ nahiz PP taldeei aipatu nien moduan, bada ideia izango litzateke hurrengo obren Foru Planean, hori baita garrantzitsua, dirua sartzen duena, 2022-2023 biurtekoan izango litzatekeena, Aldundiari obra hori eskatzea, ikusirik Aldundia prest dagoela obra hori egiteko jadanik, obra hori eskatzea eta obra hori bi urte horietan planifikatu eta egikaritu dadila. Orduan beno, apur bat, egia esan eskertu egin behar dela azken batean urratsa, beno, Podemosek izan duen ekimena. Baita azken batean alderdi guztiak bat egin izana eta baita Bideen Diputuari ere, Javier Hurtadorik, izan ere tira, zentzu horretan ere prest azaldu baita esatean "beno, prest gaude errepide horretan jarduteko betiere Udalak", haiek dioten moduan "lehendabizi eskatzen baldin badigu ondoren hitzarmen bat egiteko" eta apur bat modu horretan garatu da.

Miren Izaskun Perez Barragan: ados. Uzten baldin badidazu, Joseba, nik apur bat ñabartzearen, guk jakin genuen Elkarrekin Podemosen mozioaren berri, eta ondoren EAJ eta PSE taldeek aurkeztutako bigarren zuzenketa bat izan zen, eta ondoren transakzional bat egin zen eta hori izan zen onartu zena. Orduan ez litzateke gaizki egongo Udaletik ez soilik Elkarrekin Podemosi eskerrak ematea, baizik eta baita gainerako alderdiei ere.

Alkatea: ez, nik esan dudana da jakin nuena Bildukoa zela kontsultatu egin zidatelako, PSOE alderdiarena Diputatuak zuzenketa aurkeztuko zutela esan zidalako, eta ondoren ikusi nuen guztiak sinatuta bidali zidatela.

Miren Izaskun Perez Barragan: hori da dena.

Alkatea: ez dakit zer-nola nahastu den hau guztiau.

Miren Izaskun Perez Barragan: bada, EAJ dela esan, ez da ezer gertatzen eta. EAJ dela. Azkenean gai garrantzitsu batekin lortu baitugu, guztiok Aldunditik...

Alkatea: uste dut begirune handiz jokatzen ari naizela esanez gainera Elkarrekin Podemosen ekimenari esker, baita Javier Hurtado Diputatuaren jarrerari esker, hau da, haien eskutik lortu dugu azken batean guztiok onura izan dezagula gainera guztiok babesten duten gauza baten gainean. Gainera uste dut esan dudala, sinatu duten alderdi guztiena.

Miren Izaskun Perez Barragan: hori, ez dela ezer gertatzen EAJ aipatzeagatik eh?

Alkatea: EAJ eta Alderdi Popularra, dagoeneko sinatu baitute. Ez dut inolako arazorik eta. Nik zuzenketak zeudela jakin eta ezagutzen nituenak aipatu ditut.



Jose Miguel Vadillo Ribacoba: gauza bat geratzen zaigu hemendik. Noiz altxatuko da hemen gorako seinaleztapenaren postea, San Antonioko baserrietakoa?

Alkatea: ah, ados. Hori egiteke dago, eta beste bat dago Erretan, hura ere airean joan zena, beste gauza batzuk bezala, eta hori egiteke dago igorri behar diegulako, dagoeneko bildu ditugu argazkiak ega gainerakoa, haizeak sorrarazi zueneko. Ez hori bakarrik, baizik eta, oker ez baldin banago, kristalak kiroldegiaren goialdean, Mendietako panel guztia eraman zuen, panela hegan atera zen, eta juxtu lehen Gotxirekin hitz egin dut hitzordua ipintzeko, dauden argazki guztiak ikusi, eta aseguruari bidaltzeko, horrela aseguruari partea emateko. Euskalmeti ere Urduñako haizearen datuak eskatu genizkion eta Urduña eta Amurriokoak helarazi zizkiguten uste dut, asegurua gairi gaineratzeko hori ere, haizearen abiaduragatik, eta orain guztia izapidetu behar da. Egia esatera han gorako hori ikusten da, nik uste dut aurrez ustela edo zerbait zegoela eta haizetearekin harrapatu eta eraman egingo zuen. Baina asmoa da guztia bidaltzea aseguruei eta ondoren egon diren kalteak konpontzen joan eta asegurua ordainketarekin guztia berriro ipintzen joatea.

Eta jorrazteko beste gairik gabe, amaitutzat eman zen saioa, lehenago aipatu egunaren hamaikak eta berrogei minututan. Eta guztiorren gainean, fede ematen dut.